

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2012-12-05
EGUAZTENA
533. ZENBAKIA
13. URTEA
DOAKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM

Futbolaren bidez euskara indartzen



Gazteak futbolean. | IMANOL SORIANO

Kirola Euskaraz egitasmoa 500 ume futbolarirekin, haien gurasoeekin eta taldeekin ibiliko da aurten lanean, eta euskara lantzeko zenbait ekintza egingo dituzte; hiru topaketa, esaterako. | 2

Apirilerako martxan egongo da atez atekoa Bergaran eta Oñatin | 4



Hasi dira antolatzen Korrikarako batzordeak | 4



Markel Irizar txirrindularia 'Informe Robinson' saioan protagonista | 20



Los Cretinos, CD berriarekin. | MAIDER ARREGI



Never Surrender arrasatearrak. | HODEI BEITIA



Martin Arriaran bergararra. | GOIATZ ARANA



Angerrek disko berria eroango du. | A.M.



Agirreurreta, Jokin Zaitegiren irabazlea. | AED



Juan Carlos Irizar, lan berriekin. | MIREN ARREGI



Los Galerna, Surfusion lanarekin. | J.B.



Sharon Stoner oñatiarrak. | MAIDER ARREGI



Maite Toledok bi liburu eroango ditu. | T.M.



Asier Altuna Kixi, DVDarekin. | GOIENA



Arkada Social arrasatearrak. | JOKIN BEREZIARTUA



Goseren laranja koloreko lana. | GOSE

Bailarako uzta, Durangora

Bihar, eguna, hasi eta abenduaren 9ra bitartean, Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokaren 47. edizioa izango da. Aukera aparta Debagoieneko eta Euskal Herriko sortzaileen lana ezagutzeko. | 23

SINADURAK



'Urrutiko intxaurrak hamalau' | 5
ARITZ ARRIETA



5 | 'Gaur Suitza naiz' |
TXOMIN MADINA



'Euskara amets' | 32
AINTZANE OIARBIDE

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 5 |
ELKARRIZKETA 8 | HERRIAK 9 | KIROLA 20 |
KULTURA 23 | ZURE IRAGARKIAK 27 |
TELEBISTA-IRRATIA 28 |
ESKELAK 29 | NON-ZER 30

"Beste banka eredu bat bideragarri eta beharrezkoa dela erakutsi dugu"



Joan Antonio Mele
Triodos Bank-eko zuzendariordea | 8

Goia jo du langabezia mailak azaroan: 3.701 langabe daude

%12,42 da tasa, iazko azaroan baino 733 langabe gehiago | 4

Carrefour GORBEIA

Abenduaren 24ra arte

OPARIA

%8*

DESKONTU TXARTELA ERREGAIETAN

*60 € baino gehiagoko erosketengatik. Club Carrefour zure txartela aurkeztuz edo PASS Visa zure txartelaz ordainduz. Urartea kalea - 23 (Albarra izkina), Foronda, Zurbano eta Arrasateko AVIA zerbitzuguneetan trukagarria.

Futbolearen ere euskaraz egitea indartu gura dute

Kirola Euskaraz egitasmoak 500 ume futbolari eta haien guraso eta taldeekin jardungo du aurten

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Umeen kirol jarduerak eta euskara gero eta gehiago elkarrekin joatea bultzatu nahi dute udal-tako kirol eta euskara zerbitzuek eta taldeetako arduradunek eurek, eta bide horretatik zenbait pauso eman dituzte azken asteotan. Ikusgarriena —eta, protagonistendako, umeendako, seguru asko dibertigarriena ere bai— azaro erdialdean egin zuten, Bergaran, 2002., 2003. eta 2004. urteetan jaio-takoen futbol taldeek, neskek eta mutikoek, topaketa egin eta hainbat partidu jokatu zutenean,

Agorrosinen. Ekitaldi horrek Kirola Euskaraz egitasmoaren aurrerapauso garrantzitsua markatu zuen, aparteko aita-pontekoekin: Aitor Lopez Rekarte eta Agustin Arantzabal Realeko futbolari ohiak.

Aurrerantzean, ume horiekin, gurasoekin eta umeen hezitzaile eta entrenatzaileekin euskara lantzeko hainbat ekintza etorriko dira: besteak beste, Agorrosinen egin zutena bezalako beste hiru topaketa. Aretxabaletan izango da hurrengoa, Gabonen bueltan, Bixente Etxeandia txapelketaren aitzakiarekin; Aste Santuan, hirugarrena, Oñatin; eta azkena, Arrasaten, Mondraren 100 urteen ospakizunean, ekainaren 16an, eta egitasmoa koordinatzaileak, Igor Arenatza aretxabaletarrak, "saio garrantzitsua" izango dela iragarri digu. Horrez gain, hitzaldiak eta entrenatzaileendako formazio saioak antolatutuzte.

Udalek bultzatuta
Kirola Euskaraz egitasmoa Debagoieneko udalek sortu zuten 1993an; gero Debarrenak bat



Kirola Euskaraz-en lehenengo topaketa egin zuten joan den hilean Agorrosinen; argazkia

egin zuen eta, Foru Aldundiaren laguntzarekin, Gipuzkoa osora zabaldu zen. Orain, etapa berria hasi du, proiektu berri horrekin. Horren atzean daude Debagoieneko udal-tako Euskara eta Kirol batzordeak, eta Udalek Kirola Euskaraz-erako duten aurrekontuekin finantzatzeko da.

Igor Arenatza futbolari ohi eta entrenatzaileak lan handia egin du kirola eta euskara bateratzeko; hala, bera izan zen Aretxabaletako Eskua proiektua sortu zutenetarikoa bat. Orain, Kirola Euskaraz plangintzaren proiektu berria gidatzea egokitu zaio.

VITORIA GASTEIZ informazio orokorra 2012

Ardo Araba
gasteiz on vitoria-gasteiz taste street

Jai enogastronomiko handia

abenduak 6 · 7 · 8 · 9

Antolatzailea: **gasteiz on**
www.ardoaraba.com
facebook/ardoaraba
@ardoaraba

QR code


Informazio orokorra

Ordutegiak

Osteguna 6	[12:00-14:30] [18:30-22:00]
Ostirala 7	[18:30-22:00]
Larunbata 8	[12:00-14:30] [18:30-22:00]

Hirian karpak non egongo diren

Bastiturrri Kalea	A	Probintzia Plaza	B
Aihotz Plaza	C	Jesus Guridi Plaza	D
Turismo bulegoa	▲	Informazioa jasotzeko eta tiketak eroszeko gunea	★



Informazioa

Gasteiz On • 945 15 02 68 • www.gasteizon.com • www.ardoaraba.com
Vitoria-Gasteizko Turismo bulegoa • 945 16 15 98 • www.vitoria-gasteiz.org/turismo

KALEZ KALEKO IBILBIDEA
ARDOARABA MENUA
GOKO-GOKO AZOKA
BESTELAKO JARDUERAK
ZOZKETAK ETA SUSTAPENAK

ENOBUS ZERBITZUA

Gainera, are errazago jarriko dizugu: autoaz ez arduratzeko, **eguneko autobus zerbitzua** izango duzu ostegunean, 6an, ostiralean, 7an, eta larunbatean, 8an.

- Irteera Arrasatetik, Garibain, 11:15ean. * Prezioa: 18 euro.
- * Prezioaren barruan sartzen dira joan-etorriko txartela, Ardoaraba taloitegia eta kopa ofiziala.

INFORMAZIOA ETA IZEN EMATEA • Telf. 946 071 707 • servitur@stipaisvasco.com

Babesle ofizialak



Babesle bereziak





n, neska-mutikoak lehian. | IMANOL SORIANO

Oraingoz, futbolarekin eta hiru urteko adin-tartearekin hasi dira. Berak azaltzen digu zergatik: "Datuak daude gero eta euskara gutxiago egiten dela. Hau pentsatu genuen: non sortu dezakegu umeak euskarara joateko eragin positiboa? Bada, kirolean egiten den leku baten; eta futbolera umeak oso-oso pozik datoz. Eta umeak hain txikiak izanda, gurasoek ere laguntzen diete futbolera, eta gurasookin lan egitea ere oso inportantea zela pentsatu genuen. Bestalde, entrenatzaile eta hezitzaileok, bailaran, euskaldunak gara; beraz, taldeak ere euskalduntzen joan nahi dugu, entrenatzaileek maila teknikoa bakarrik ez, euskararen ere maila bat izan dezaten".

Helburu nagusia umeekin eta, horien bitartez, gurasoekin euskara lantzea da, baina, horrekin batera, baita taldeen maila teknikoa hobetzea ere.

Bide batez, askotariko balore positiboak landuko dituzte umeekin.



Bi taldeetako neskak, euskararen aldeko kartelarekin. | FELIS BELTRAN DE HEREDIA

Aurkariak, euskarak elkartuta

Euskararen Nazioarteko Egunaren ospakizunen bueltan, euskarak batera ipini zituen joan den aste bukaeran Arizmendi eta Bergara nesken futbol taldeak. 12 eta 13 urteko neska horiek zapatuan jokatu zuten, talde batek bestearen aurka, baina, argazkia ateratzeko behintzat, lehia alde batera utzi eta *Euskaraz bizi nahi dugu* lelopean denok elkarrekin agertu ziren, argazkiak erakusten duen moduan.

IGOR ARENAZA
KOORDINATZAILEA

"Futbolarekin hasi gara, eta saskibaloira zabaldu nahi dugu"

Zergatik hasi zarete futbolarekin?

Umeak futbolera oso pozik datozelako. Futbolak badu hainbat balio positibo, eta horietako bat, indar handia duena eta bereizten gaituena, euskara da. Hortik hasita, landu daitezke talde lana, ahalegina, umorea... futbolak dituen gauza piloak; eta, gainera, ingurumenarekiko sentsibilitatea sortu umeengan.

Ze egutegi duzue?

Dagoeneko hasi gara entrenatzaile eta hezitzaileei formazioa ematen. Gurasoendako hitzaldiak egongo dira, eta umeekin topaketak egingo ditugu. Horrez gain, barne-inkesta batzuk egingo ditugu, teknikazioaren eta euskararen gainean, eta euren artean halako konpetentzia bat sortuko dugu.

Etorkizunari begira...

Datorren urteari begira, saskibaloian ere egin daiteke lan, horrek ere jende asko mugitzen duelako; eta Debarrenera zabaltzeko asmoa dugu. Eta alebinak-eta sartzen joaten bagara, hobeto.



IMANOL SORIANO

Euskaraz animatzeko pautak

Igor Arenazaren esanetan, futbolearen eta, oro har, kirolean, badago zertan hobetu, euskaraz egiteari dagokionean. Hala, euskarazko izenak dauden arren, sarritan erdarara jotzen da *zutoina* (poste) edo *langa* (languero) izendatzeko. Horiek adibide pare bat besterik ez dira. Bada, maila horretan, ume txikiak "lan txukuna egin daiteke", Igor Arenazaren esanetan.

Helduengana ere ailegatuko dira: "Gurasoei pautak eman diezazkiekegu, zelan animatu, ze hitz diren egokiak... Entrenatzaileekin, berdin. Alde hori zailagoa da, entrenatzaile guztiek erdaraz ikasi dutelako".

Bide lagun berezia izango dute Kirola Euskaraz egitasmoak: Realak. Arenatzak esan digunez, "Realak ere parte hartuko du egitasmoan, eta txosten

ESANAK

"Umeek ikus dezatela euskara zaindu eta kirola egin behar dela"

AGUSTIN ARANTXABAL | FUTBOLARI OHIA

"Honelako ekimenei laguntzen saiatu behar dugu"

AITOR LOPEZ REKARTE | FUTBOLARI OHIA

bat egiten dabil, garai hauetan euskara umeekin zelan landu daitekeen".

Hezkuntza integrala

Kirola Euskaraz-ek futbol eskoletan lantzen hasi den proiektua Aretxabaletan UDA arrakastaz egiten dabilen Eskua proiektuan inspiratuta dago; hain zuzen, Igor

Arenatza da horren bultzatzaileetako bat, Erik Badillorekin batera. Eskua (Errespetua Sustatzeko Kirola Ulertuz Aretxabaletan) heziketa integralerako plangintza orokorra da, eta alde fisikoa, taktikoa, teknikoa eta emaitzena zokoratu barik, baloreak eta alde emozionala lantzen dute umeekin.

BADIRA ATE BAT IREKITZEAN HASTEN DIREN AMETSAK.

“GIZARTEAREN GARAPENEAN LAGUNTZEKO IKERLARI IZAN NAHI NUEN ETA UNIBERTSITATEAK ATEAK IREKI DIZKIT.”

Alaitz Zabala, Biomaterialen ikerketa lerroko ikerlaria.

PREST

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

ATE IREKIAK

Goi Eskola Politeknikoa

ARRASATE · ABENDUAK 15 larunbata, 10:30

Enpresagintza Fakultatea

OÑATI · ABENDUAK 13 osteguna, 18:00

BIDASOA · ABENDUAK 15 larunbata, 11:00

Gastronomia Zientzien Fakultatea-Basque Culinary Center

DONOSTIA · ABENDUAK 15 larunbata, 10:30

Ate Irekiak ONLINE

ABENDUAK 18 asteartea, 18:30

<http://mukom.mondragon.edu/mutb>

ARETO NAGUSIAN

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI ↓

902 110 436

www.mondragon.edu/prest

Mankomunitateak Oñatin eta Bergaran apirilerako aurreikusten du atez atekoa

Arrasateren kasuan, aurreikusitakoa baino beranduago ezarriko lukete: 2014an, hain zuzen

A.T./Z.V.D.M. | ARRASATE

Debagoieneko Mankomunitateak Arrasaten duen egoitzan, Leintz Gatzaga, Bergara, Oñati eta Arrasateko alkateek prentsaurrekoa eman zuten. Atez ateko sistemaren inguruan jardun zuten, eta, aditzera eman zuten, Mankomunitatearen asmoa Bergaran eta Oñatin sistema berria 2014ko apirilean martxan jartzea da.

Bi herri horietan atez ateko sistema ezarri aurretik, baina, beste fase bati ekingo diote: beste parte-hartze prozesu bat jarriko dute martxan erdiguneko bizilagunendako. Bertan, orain arte egindakoari buruzko informazioa emango diete herritarrei, eta euren proposamenak jasoko dituzte. Leintz Gatzagan, berriz, udaberritik aurrera sortzen duten organiko guztia herrian bertan kudeatuko dutela azaldu zuten Mankomunitatetik.

Oñati eta Bergararen erronka

Mikel Biain Oñatiko alkateak prentsaurrekoan adierazi zuenez, "Oñatik eta Bergarak erronka handia dute aurretik". Bi herrietan duela hilabete batzuk hasi



Gatzaga, Bergara, Oñati eta Arrasateko alkateak prentsaurrekoan. | A.TXINTXURRETA

ziren landa eremuko eta zenbait auzotako herritarrekin atez atekoaren asmoa eta proiektuak partekatzen, eta apiril ingururako ipini gura du Mankomunitateak martxan sistema bi herrietan.

Horretarako, datozen eguntan herriko hainbat eragileekin bilduko dira; esaterako, "kultur zein gizarte eragileekin eta atez atekoaren alde eta kontra dau-

denekin", bilketa sistema berriaren xehetasunen gainean elkarrekin aritzeko. Ondoren, urte hasieran, herriguneko bizilagunekin zabalduko dute parte-hartze prozesua.

Xehetasunez berbetan

Oñatiren kasuan, parte-hartze prozesu horretan hitz egingo dute papera eta kartoia eta ontzi ari-

nak zein eratarata batuko diren. Beste bi gai hauei buruzko herritarren proposamenak ere jaso gura dituzte: bilketaren zirkuituak nolakoa izan behar duen eta auzoetan zintzilikarioak non jarri erabakitzea.

Bergaran ere dagoeneko zabaldu dute informazio bulegoa, eta parte-hartze prozesuan, besteak beste, gai hau landuko dute: ea auzoetan zintzilikarioak edo ekarpen-guneak jartzea komeni ote den.

Bestalde, Leintz Gatzagan udaberritik aurrera sortzen duten organiko guztia herrian kudeatuko dutela azaldu dute. Eugenio Otsoa alkateak zehaztu du herriko bi gune zehaztuko dituztela "konpostaje komunitarioa egiteko", eta baserritarrekin harremanetan jarriko dira egin beharrekoari buruz berba egiteko.

Arrasaten 2014an

Arrasaten, berriz, asmoa da 2014an jartzea atez ateko bilketa sistema. Aurretik, baina, orain arte Bergarak eta Oñatik jarraitu dituzten urratsak jarraituko ditu Arrasatek ere.

Egunotan ibarrean geratuz gero zer egin egongo da

Bisita gidatuak eta museoak, herritarron eskura

Z.V.D.M. | ARRASATE

Asteburu luzea dute aurretik askok, eta ibarrean geratuko dira. Aisialdia aprobetxatzeko, etxetik gertu ere, zer egin egoten da. Museoek atek irekitzen dituzte eta bisita gidatuak egiteko aukerarik ez da falta.

Aukera asko

Gatz museora bertaratzeko aukera egongo da zubi honetan ere, eta garai bateko urre zuriaren nondik norakoak ezagutu. Oñatiko Arrikruz kobek gordetzen duten altxorra deskubritzeko aukera ere egongo da. Bietan, aurretik hitzordua egitea gomen-dagarria dela jakinarazi dute.

Euskal artzainaren ibilbideak egin gura izenez gero, Gomiztegi baserrira bisita gidatuak antolatzen dituzte, edota Bergarako gune historiko-monumentalaren bisita gidatuak eskaintzen ditu egunero Bergarako Turismo Bulegoak.

Arantzazuko Santutegia hobeto ezagutu gura dutenentzako aukera ezberdinak daude: Santutegia bera bisitatzea eta Oteitzaren eta Arantzazuren arteko erlazioa ezagutzea.

TURISMO BULEGOAK

BERGARAKO TURISMO BULEGOA

EGUENETIK ZAPATURA

► 10:30-14:00 eta 15:30-17:45

DOMEKAN

► 10:30-13:30

ESKORIATZAKO IBARRAUNDI MUSEOA

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA

► 09:00-14:00 eta 17:00-19:00

GATZAGAKO GATZ MUSEOA

BISITA GIDATUAK ZAPATU, DOMEKA ETA JAI EGUNETAN

► 12:00 (euskaraz) eta 13:00 (gaztelaniaz)

OÑATIKO TURISMO BULEGOA

BISITA GIDATUAK EGUNEAN ETA EGUBAKOITZEAN

► 12:00

BISITA GIDATUAK ZAPATUAN ETA DOMEKAN

► 11:00

ARRIKRUTZEKO KOBAK

EGUENETIK DOMEKARA

► 10:00-14:00 eta 15:00-17:00



Sari banaketa egunean. | AMAIA TXINTXURRETA

'Heriotzaren trataera eskolan' lana saritu dute Euskararen Egunean

Z.V.D.M. | ESKORIATZA

Bigarren saritu dituzte Mondragon Unibertsitateak eta Mondragon Korporazioak MUko ikasleek euskaraz idatzitako gradu amaierako lanak. 42 lan aurkeztu dira, eta Idoia Sararen Heriotzaren trataera eskolan izenekoak eraman du lehenengo saria. Astelehenean, Euskararen Egunean eman zuten aditzera epaimahaia erabakia.

Esperientzia pertsonala

MUko ikasleak korporazioko enpresetan gradu amaierako proiektu gehiago euskaraz aurkezte helburu duen sariketa

da MU-Mondragon saria. Korporazioko Euskara Batzordeak sustatutako ekimenaren bigarren edizio honetan, Psikopedagogiako ikasle Idoia Sara irten da irabazle, eta 2.000 euro jaso ditu Heriotzaren trataera eskolan lanagatik. Psikopedagogiako ikasleak "bizipen pertsonal batek bultzatuta" erabaki zuen gaia ardatz hartzea.

Euskarazko proiektu gehiago

Iaz 115 proiektu idatzi ziren euskaraz MUn, eta horietatik 17 aurkeztu ziren lehiaketara. Aurten, berriz, euskarazko 132 proiektu idatzi dira eta 42k lehiaketan hartu dute parte.

Langabezia, urteko maximoan: %12,42

LEIRE KORTABARRIA | DEBAGOIENA

Urteko beste maximo bat jo du langabezia datuak bailaran, azaroan: 3.701 langabe zeuden Lanbiden izena emanda, %12,42. Urria ezker 57 langabe gehiago daude, 0,2 puntu handitu da langabezia-maila.

Datuek beste puntu beltz bat erakusten dute: hain zuzen ere, iazko azarotik hona dezentokertu da langabezia: 733 langabe gehiago (+2,84 puntu), hain zuzen ere.

Alde positiboari erreparatuta, bailarako bi herritan urriko langabezia datu berberari eutsi diote: Elgetan (62, langabe, %11,44) eta Eskoriatzan (235 langabe, %11,54). Baina beste guztietan, langabe gehiagorekin bukatu da azaroa.

HERRIZ HERRI

HERRIA	LANGABEA	EHUNEKOA
Antzuola	13	%10,36
Aretxabaleta	345	%10,20
Arrasate	1.517	%14,64
Bergara	919	%13,10
Elgeta	62	%11,44
Eskoriatza	235	%11,54
Leintz Gatzaga	9	%6,67
Oñati	501	%9,55
GUZTIRA	3.701	%12,42

ITURRIA: ESPAINIAKO ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA

Korrika batzordeak eratzeko bilerak deitu dituzte

Z.V.D.M. | ARRASATE

Andoainen irtengo da Korrika 18, 2013ko martxoaren 14an, eta Baionan amaituko da, 24an. Debagoienetik martxoaren 21ean igaroko da, Elosutik sartu eta Gatzagatik irtenda. Debagoieneko AEK herrietan korrika batzordeak sortzeko nahian dabil eta bilera hitzordua deitu dituzte. Gehienak 18:30ean: abenduaren 11n Oñatiko Kultur Etxean elkartuko dira; Aretxabaletan hilaren 12an, udaletxean; abenduaren 13an Elgetako udaletxean (18:00) eta Arrasateko AEDren egoitzan; Bergaran kultura etxean bilduko dira abenduaren 14an; eta 18an Eskoriatza eta Leintz Gatzagan, kultura etxean. Antzuola eta Aramaioko hitzordua zehazteke daude.

ZABALIK



ARITZ ARRIETA
'http://goiena.net/iritzia/'

Urrutiko intxaurrak hamalau

Politikagintzan egiak egia beharko lirateke, baina egiak gezur bilakatzen direnean... Bada urtebete pasatxo Madrilgo Gobernuan alderdi popularra Estatuko etorki-zunaz kargu egin zela, eta egia da Espainiako hiritar gehienek eman diotela enkargu hori; beraz, legitimazio osoz daude Moncloatik euren eginbeharrak egiten.

Gauza da politikan zerbait saltzen dela eta komertzioan bezala izan beharko litzatekeela, "si no le convence devuélvalo" esaten den hori. Politikagintzan zerbait saltzen da; ez da zerbait tangiblea, baina bere balioa dauka. Alegia, ideiak dira, promesak. Zer gertatzen da promes horiek ez direnean betetzen? Lau urte itxoin beharra daukagula berriz gure politikariak aldatu ahal izateko. Nire ustetan, promes horiek kontratuak dira; beraz, betetzen ez badira, sinatutako kontratu hori apurtu egin beharko litzateke. Hau da, berehala hauteskunde-deialdia egin eta hiritarrek aukera dezatela jarraitu nahi duten kontratu horrekin ala ez. Zergatik? Zentzuzko gauza bategatik: ezin dugulako politikariok hauteskundeetara egin ezin dugun gauzeekin herritarrak engainatu.

Erraza da promesak momentu baten airera isurtzea, baina promes horiek haizeak eramaten ditu; horregatik, lege bat bultzatu beharko genuke, politikarien promesak kontrolatzeko. Herritarrok sinatzen dugu politikariekin kontratu hori; beraz, erantzukizunak eska ditzakegu.

Mariano Rajoiren Gobernua egin behar ez denaren etsenplurik klaruena da: hainbat eta hainbat promes egin zituen eta oraindik bat ere ez aurrera eraman. Eta hori ez da txarrena: askok eta askok botoa eman zioten, gaur egungo arazoek konponbidea zelakoan, eta hara non gauden: Espainiako arazoak txarrerara joan dira eta oraindik beste hiru urte geratzen dira Mariano Rajoiren Gobernuaren ezintasuna sufritzeko.

Urrutiko intxaurrak hamalau, gerturatu eta lau.

USTEAK USTE

TXOMIN MADINA | 'tmadina@goiena.com'

Gaur Suitza naiz

Gai bila ideologia guztietako egunkari zein agerkari digitalak begiratu. Azkenaldian buruan darabilzkidan kezka existentzialen errepasoa egin. Inspiratzen, zentratzen edo lasaitzen lagunduko didan musika entzun. Kaferen bat hartu eta zigarro gehiegi erre. Lerrook idazteko jarraitutako urratsetako batzuk dira horiek. Eta ezin: ez naiz gai sentitzen gai konkreturen baten gainean neure usteak kaleratzeko. Hatzak mutu geratu zaizkit teklatu gainean. "Zergatik?", autogaldera. "Ez dudalako nire hitzen preso izan gura", autoerantzuna. "Koldarra", autoakusazioa. Seguruenik, bai. Baina sarriegi iritziak arma bihurtzen diren garaiotan, nik, gaur, nahiago dut Suitza izan.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | http://goiena.net/iritzia/



HANDIK ETA HEMENDIK

El basko da asko

Koldo Izagirre
http://argia.com/

Urtebete izanen da, agian gehiago, ez aspaldi nolanahi ere, prentsan, geltokietan eta berriztatze lanetan ziren eraikin handietan (ikusgarria izan zen), esne txarrarena oinarri hartuta Kaiku markak euskara erdararen zerbitzuko ipini zuela (ezer berririk ez). Era zabar samarrean egin baitzuen euskararekikoa (elebitasun morroitu), zer esanik eman zuen bazterretan (publizitate efikaza beraz), harako "esne txarra" eta "ni kaiku naiz" ezin adierazgarriago batzuk bitarteko.

Kantauriko Perlán.
Bere buruari Euskararen Hiria esaten dion horretan.
Oraingo kanpaina ikusgarrienak bi hilabete iraun duen ez dakit, agian bi aste baino ez dira izan, baina bai handi, ikusgarri, mugikor, egun eta ilun, goiz eguerdi arratsalde hiri barnean eta perimetroan, esnea ez baina fruta oinarri harturik...

El euskera es la pera.
Euskararen Hiria omen den hiri honen udalak kudeatua eta ordaindua.

Bestelako modua eta sentikortasuna ekarri behar omen zuen udal gobernua daukan horretan.

Barne egituraketan, Euskararen Patronatua Euskara Zerbitzuan integratzea izan zen udal gobernu berriak, Bilduk, hartu zuen aurreneko erabakietarik bat. Ez dakit honek loturarik daukan euskarari egindako irainarekin, baina Euskararen Patronatuak izan du bere ibilbidean aski burujabetasuna horrelako zabarkerietara ez makurtzeko.

Oraingo hau, hain zuzen, Euskara Zerbitzuak sinatua dator.

Euskaltegietako matrikulazioa sustatzearren erakutsi digute madari madarikatu hori.

Euskara ez da euskera, euskera ez da euskara, euskara ez da gaztelaniaren errima premien funtzioan alda litekeen (oker nago, ze horixe bera egin baitute)...

Euskarak ez luke behar gaztelaniaren harietarik mugitzeko txotxongiloa.

Gure hizkuntza ez da izugarria edo polita edo txoratzekoa edo pera horrekin adierazi nahi den ezein perla. Gure hizkuntza arazoak sortzen dituen tresna delikatua

da (ikastoletako patioetan edo atarietan froga litekeen bezala), bizi osorako konpromisoa eskatzen duen ezkontidea, norberak kultura apur bat ez hartzera erraz samar gal genezakeen ondasuna, atertu gabeko jazarpena pairatuko duena gerora ere...

Egin koxk euskarari!
Horixe izan zen, bere bustidura txatxua eta guzti, el euskera es la peraren... Jatorria? Iturburua? Hago horretan! Bertsioa, zer besterik. Euskarak ez dauka sormenik, sormena gaztelaniarena da. Euskararen erabilera, elebitasunean, gaztelaniaren funtzioan dago. Euskararen sustapenaren mundu ekonomikoa gaztelaniaren esku dago.

El euskera es la pera esan digunaren aurpegia, nola ez, Arzak izan da, beren euskara galtzera eta zarpailtzera utzi duten edo sekula ikasiko edo kontuan hartuko ez duten eliteko sukaldari jator, hidrogenoaren eta gaztelaniazko minutiboen lagunak kofradiako ordezkari gorenak...

Barre egiten digute aurpegira.
Gaitz honek ez dauka erremediorik.

goiena

KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziertra Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereizibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERRA
ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale
Difusioa: 19.951 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala




Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

Euskaraz bizi nahi duzun horri

Itxaro Artola
(AEDko Ekintza taldearen izenean)
Arrasate

Egunotan bete dira 29 urte Arrasate Euskaldun Dezagun-AED elkartea sortu zela. Euskararen erabileran urrats handiak eman ditugula ezin da ukatu, baina bide luzea geratzen zaigu elkartearen bultzatzaileek jarritako helburua betetzeko. Zapatuan ere Donostiako kaleak bete genituen Euskaraz bizi nahi dugula aldarrikatzeko. Oraindik aldarrikatzen ibili beharra ere, bada marka! Horixe da, ordea, gure egunerokoaren gordina.

Horren lekuko, Nekane San Miguel eta Jose Mari Velez de Mendizabal gure herrikideek duela egun gutxi, tokiko hedabideen bitartez lehenak eta bere blogean bigarrenak, euskaraz bizitzeko ahaleginean jasan behar izan dituzten esperientzia latzen inguruan kontatutakoak. Bistan da. Bitoriano Gandiagak utzi zuen idatzia 1970 inguruan eta lehengo lepotik burua jarraitzen dugu:

"Hemen / euskaraz ez dakienak / berak jakingo du / zergatik ez dakien. / Baina hemen / euskaraz ez dakienak / ez digu uzten / euskaraz egiten. / Baina eta hemen / euskaraz jakin arren / euskaraz mintzatzen / ez denak ere / ez digu uzten / euskaraz egiten".

Ez, ez digute uzten euskaraz egiten. Gure herrian, gure auzoan, gure atarian, gure lantokian, gure koadrilan galarazi egiten digute euskaraz bizitzea. Ez digulako euskaraz egiten uzten ikasi nahi izan ez duen auzokoak ere. Ez digutelako uzten ezta euskarari bizkarra eman dioten lankide, senide, adiskide euskaldunek ere.

Honenbestez, ezin gara manifestazio, aldarrikapen eta borondate hutsezko adierazpenetan geratu. Aurre egin behar diegu euskarari eta euskaldunoi eraso egiten diguten jarrera eta portaera guztiei. Goiko erakundeetatik datozenei bezain zorrotz inguru hurbiletik datozkigunei.

Euskalgintzako erakundeoi dagokigu bide horretan akuilu lana egitea. Euskaldunon hiztun komunitatea bildu, elikatu eta aktibatzea. Baina euskaldun bakoitzarengan dago nagusiki euskaraz bizi ahal izateko giltza zein ardura. Lehen hitza beti euskaraz eginez, euskaldunon artean arlo guztietan erabiliz, euskaltasunarekin koherentzian jokatzu, euskarazko hedabideak eta kultura kontsumituz, euskaraz ez dakienaren eta belaunaldi berrien aurrean eredia emanez, bere ingurune naturalean eraginez... Bat bazatoz bidearen erdia egina daukagu.

GUTUNAK

Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak dira: Otalora Lizentziaduna, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

Kutxa pribatizatzeko trikimailuak

Enrike Letona
(Arrasateko ezker abertzaleko kidea)
Arrasate

Azaroaren 21ean Gipuzkoako Kutxako batzar orokorra osatu eta Administrazio Kontseilua bozkatu zen. Bertan gertatutakoa lotsagarria izan zenez, eta debagoiendarroi bete-betean eragingo digunez, salatu nahi dugu gutun honen bidez.

80 batzarkide aukeratu behar ziren eta ondoren horien artean 15 kide Administrazio Kontseilua osatzeko.

Udaletan, Batzar Nagusian eta Kutxako batzarrean EAJk, PPk, eta PSOEk batu egin zituzten indarrak EH Bilduren aurka joateko.

Komunikabideetan bata bestearen kontra esaten dituzten guztiekin, zein ondo moldatzen diren Kutxa kontrolatzeko.

Gainera, edozein zerrikeria egiteko eta babesteko prest agertzen dira. Gizarte eragileei dagokienez, Euskararen Kontseiluak aurkeztutako hautagaitza atzera bota zuten. Zergatik? Bada, ordezkoak 70 urtetik gora zituelako. Araudiak argi esaten du Administrazio Kontseiluko kideek ezin dutela izan 70 urte kargua hartzen dutenean, baina hautagaitza atzera botatzeko arrazoien artean ez da hori agertzen. Gainera, gizarte eragileek ordezkari bakarra dute eta lehenak hartuko luke kargua, ez ordezkoak.

Hortik aurrera joko zikina nagusitzen joan zen. Jesus Mari Larrazabalek –EH Bilduko kidea– salatu egin zuen bertan hautagaitza bat baliogabetu zutela ordezkoak 70 urte zituelako eta beste hautagaitza bat aurkeztu zuten ordezkorik gabe. Xabier Iturbek ez zuen onartu inolako kexarik eta aurrera jarraitu zuen prozesuarekin.

Lehendakaria aukeratzeko bozketan bi hautagai aurkeztu ziren: EAJko Xabier Iturbe eta EH Bilduko ordezkari Antton Izagirre. Berdinketa bat egon zen eta hauteskunde-batzordeko kideek erabaki zuten berdinketa adin gehien zuen pertsonaren kalitatezko botoarekin hautsiko zutela,

hori inongo arauditan agertzen ez denean. Hori ez litzateke horrela izango zaharrena PSEkoa izango ez balitz, jakina. Beraz, trikimailu hauek guztiak erabili ondoren, EAJren, PPren eta PSEren artean banatu ziren mahaiko karguak.

PNVk, PPk eta PSEk Kutxan egin dutena beste hainbat esparrutan egiten ari diren gauza bera da. EH Bildu kanporatu, ezer aldatu ez dadin. Beraz, inolako zalantzarik gabe hau da datorkiguna: etxe-kaleratze gehiago, politika espantsionistarekin jarraitu, Kutxabank pribatizatu eta burtsara atera; bertako enpresei maileguak emateko erraztasunik ez eta kutxen izaera sozialaren amaiera.

Gure aldetik esan ez garea gora begira geldituko eta herritarren kontra hartuko dituzuen neurri guztietan parez pare aurkituko gaituzuela. Guk gurean jarraituko dugu, banku publiko eta sozialaren alde lanean.

'Atez ate ez, 5. edukiontziari bai' herri plataforma

Josu Leturia
(Bergara Garbia plataformaren izenean)
Bergara

Atez ate ez, 5 edukiontziari bai herri plataforma (Bergara Garbia) bosgarren edukiontziaren ezarpenaren alde egiteko jaio zen, zaborrak biltzeko era merke, garbi eta sozialki jasangarriena delako. Inposatu nahi diguten atez ateko sistema, garesti, estetikoki itsusia, higienikoki zikina eta jasangaitzaren aurrean. Eta hau guztia, gure zaborrak zabortegian amaitzeko justu Europak deuseztatu nahi duena. *Atez ate ez* (Bergara Garbia) Gipuzkoako plataformen koordinazioko partaide da eta bertan, bergararrontzat inposaketak sorrazizitako desadostasun eta egonezinaren erreflexu izateko, lanean dihardu.

Bilduk gidatzen duen Bergarako Udala atez ateko bilketa sistema inposatu nahian dabil, bosgarren edukiontziaren alde jasotako 4.961 sinadurei bizkarra

emanez eta jasanezina den sistema bat dela argi geratu den arren.

Bilduk bere burua parte-hartzaile demokratikotzat duen arren, oraingoan, autoritarismoa eta inposaketa da duen lege bakarra, baina ez legoke gaizki predikatzen duten hori praktikan jarriko balute.

Egun hauetan, atez atekoari buruzko aholkuak eta *zero zabor*-en "abantailak" saltzen hasiko dira. *Atez ate ez, 5. edukiontziari bai* herri plataformak Bergarako herriaren desadostasuna erakutsi nahi du, eta horretarako, Bilduk predikatzen duena eskatzen dugu, herri kontsulta bat!

Herriak hitz egin beharra dauka!

Herri kontsultaren alde!

Askatasuna zer den, nork jakin?

Paulo Elkoro
(Preso ohia)
Bergara

Norberaren herria aldatuz doa eta, presoa ere, ezin da betiko izan atxilo zuten garaiko pertsona bera, jakina.

Egungo gizartea aldatze bidean dago eta, gizaki justuagoak izatekotan, herrira bueltatzen diren presoak eta jaiotze tokira itzulitako erbesteratuak gure ondoan behar ditugu, lanean eta aisian, jaietan eta oinazetan, aberri abegikorragoa egiten laguntzen.

Horretarako behar dugu Harrera Elkartea, gure gizartearen aldaketaren alde guztia eman duten aberkideak gerturatzerakoan, gizartea ere gertu egon ahal izateko.

Gainera, zer da ba libre izatea, libre ez izatearen ondorengoa ez bada? Preso izan denak altxor handi bat dakarkio mende berriko Euskal Herriari, zoritxarrez izan bada ere. Eta haiekin eraikiko da askatasunaren katedrala, edo ez da eraikiko, galduko da bidearen kunetan.

Harrera Elkarteak aberastasun hori gorde nahi du: askatasuna lortu duenari gizarte honek ezartzen dizkion trabak leunduz, denon artean bide berriak zabaltzen asmatzeko.

Gehiago jakin nahi baduzu abenduaren 12an hitzaldi bat emango dugu bergarako Irizar jauregian, arratsaldeko 7etan.

Berdintasunaren Gose

Juan Ramon Garai
Arrasate

Hiru abesti abestu dituzte; niri, *Monleon* izan da bihotzeko zirrara sortu didana...

El cura de Monleón Pio Barojaren liburutik ateratakoa, non Mondragoeko 34ko iraultzari buruz hitz egiten duen...

Arrabalean eta gero Ondarretako espetxean ere iraultzaileek abesten zuten: *¡Arriba los de la cuchara y abajo los del tenedor!*

Horregatik, dirua abolitu zuten; ez daude begira ez Oktubradako partaideak, geroago Dragones batailoikoak... non eta Bilboko ibaiaren erdian, eurek 75 urte lehenago fusilekin berdintasunaren eta askatasunaren alde, dena, bizia ere eman zutenak, euren hitzak entzun behar zirela.

Laranja disko honi *Berdintasunaren Gose* deitzen diot, beste hirutan ere, *Hil da Europan, Naizena izateko eta Zaborra* abestietan, berdintasunaren aldeko deiadarrak entzuten direlako. *Kamarada* abestian, berriz: *Hain gorri, orain hain gor...* barrikadaren beste aldera pasatutakoena da.

Aurkezleak oso ondo esan duen bezala, disko honetan gerra-deklarazio ugari daude; neuk gehitzen dut, pobreziari, eta injustiziari, hipokrisiari batez ere.

Gose guztien aurrean Gosek lotsarik gabe pentsatzen duena esaten du.

Monleon abestia:
Hiru kaleak batzen dituen ate bat / eta, hara, hor hasten da Arrabala / Hamaika konturen lekuko diren harriek / galdetzen digute: / Nor da iñor? Eta zein da nor? /// *Handik gora sartu ziren tropek / banderaren kolore bat lapurtu ziguten. / Ta bertatik polizia sartu zen gero, / gureak ziren argazkiak eramateko. ///* *Orain ez da bertan ia ezer geratzen / Harriek bakarrik al dakite zer izan giñen? ///* *Kopa eskutan ez bada ukabilik ez da inon. / Ta hau al da nire herria zeha? / Arriba los de la cuchara! / Y abajo los del tenedor! / Zenbait uste, eta ez izan inor. ///* *Lehen ezin joateari utzi, / orain ezin iritsi... ///* *Pasatzean, zer duzu zuk gogoan? / Notiziak bihurtu dira eskela. ///* *Hiru kaleak batzen dituen ate bat bada / eta, hara, hor hasten da Arrabala.*

Arrasateko iragana eta oraina oso ondo lotzen du, iraganari buruz egia esaten badugu, oraina ulertuko dugu eta etorkizuna eraiki, baina ez gutxi batzuen interesen alde (*los del tenedor*); herritarren eta gehiengoaren alde baizik (*los de la cuchara*).
Gose naiz.

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



AKUPUNTURA

INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO

(DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Arte kale 1-1C / 943 76 01 65

Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

LOPEZ DE GOIKOETXEA

Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Oñati / Atzeko kalea 6 behea

620 12 48 43 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

FARMAZIA

AMAIA IGARTUA SAGASTIZABAL

Oñati / Kale zaharra,1 / 943 78 01 22

amaiaigartua1@gmail.com

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11

943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA

Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO

Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

ARKAITZ IRAZABAL PSIKOLOGO KLINIKOA

Bergara / 646 06 28 18

arkaitz.irazabal@gmail.com

BEITIALARRANGOITIA ALZELAI, IONE

Arrasate / Uarkape kalea 14, behea / 657720049

GARMENDIA LANDER

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

YOGA

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behea

943 76 11 38 / 639 23 57 53.



Joan Antonio Mele abenduaren 12an Arrasateko Kulturaten izango da, Harreman Debagoieneko bidezko merkataritza dendak antolatutako hitzaldian. | GOIENA

Joan Antonio Mele | Triodos Bank-eko zuzendarioa

"Beste banka bat posible, bideragarri eta beharrezkoa dela erakutsi dugu

- ▶ Triodos Bank banku etikoaren gainean dihardu Jose Antonio Melek
- ▶ Harreman bidezko merkataritza dendaren eskutik hitzaldia emango du

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Harreman Debagoieneko bidezko merkataritza dendak antolatuta, hitzaldia eskainiko du Jose Antonio Mele (Bartzelona, 1951) Triodos Bank-eko zuzendarioa Arrasaten. Abenduaren 12an izango da, Kulturaten, 19:00etan. 30 urte baino gehiago daroatza bankaren munduan lanean, eta, gaur egun, ekonomia sozialaren edota banka etikoaren gaineko hainbat hitzaldi ematen ditu. *Dinero y conciencia. ¿A quién sirve mi dinero?* liburuaren egilea da eta izen bereko bloga ere badauka. Triodos Banken gainean dihardugu.

Herbehereetan sortutako banku independentea da Triodos Bank, ezta?

Bai, 60ko hamarkadan hasi ziren honekin lau pertsona, ohiko bankaren norabidearekin gus-tura ez eta beste era bateko bankuak egitea posible zela sinistuta. Hala, 1971n fundazioa sortu zuten eta 1980an bankua. Boron-date eta misio garbi batekin: banku europarra izatea, independentea, eta helburu izango zuena mundua aldatzen laguntzea, pertsonen eta planetaren bizi kalitatea hobetzea eta finantza sistema aldatzea. Mundua hobetzeko saiakeran, batzuek gober-nuz kanpoko erakundeak darabilte; gu geu finantza sistemaren barruan murgiltzen gara.

Eta hau zela egin?

Oinarri-oinarrizkoa da gardentasuna. Izan ere, horrek laguntzen dio jendeari norbere diruaren erabilpenaren kontzientzia hartzen. Ideia eta bankua Europa osoan barrena zabaltzen hasi zen eta Estatu Espainolean 2004an ireki zen lehen sukurtsala. Hasieratik izan du oso harrera ona eta hazkunde etengabea da. Gaur egun, 14 bulego ditugu; horietako bakarra Euskal Herrian, Bilbon hain justu ere, duela bi urtetik. Estatu Espainoleko erkidego bakoitzean bulego bat zabaldu dugu eta apurka-apurka hazten goaz, beharren eta eskaeren arabera. Datorren urtean gehiago irekiko ditugu. Orotara, 170 langile ditugu. Bestalde, balioetan oinarritutako 19 finantza erakundek osatutako mundu mailako aliantza bateko kide gara. 10 milioi bezero ditugu guztion artean...

Gaur egun, inoiz baino premiazkoagoa da era honetako banku bat? Zalantzarik barik, bai. Batzuei irudituko zitzaion hau guztia utopia edo ameskeria zela, baina ohiko finantza sistemaren porrota dela-eta, inoiz baino beharrezkoagoa da Triodos Bank. Guri ez digu eragin krisi honek. Hazten goaz, geroago eta irabazi handiagoak ditugu...; hortaz, gure amets hau bideragarria da. Beste banka ere du bat posible, bideragarri eta

beharrezkoa dela erakutsi dugu. Hilero, milaka bezero berri dator guregana. Jendea konturatu da mundua aldatu nahi badugu, geuk egin behar dugula, beste batzuek egiteko zain geratu barik. Gakoa norbereren konpromisoa da.

Zertan inbertitzen dituzue irabaz-ziak?

Ez bakarrik irabaziak; gure bankura heltzen den diru guztia erabiltzen dugu balio sozial erantsiko proiektuetan. Gure kasuan, bereizi gara hiru arlotan: Kultura, Ingurumena edo Gizarte gaiak. Irabazien zati bat, jakina, erre-serbara doaz. Gure bezeroak, gure akziodunak, ez datoz irabazien bila, konpromiso bategatik datoz, gauzak beste era batera egin daitezkeela sinistuta daudelako... Baina, jakina, dirua prestatzeko, kapitalaren premia dugu eta akziodunei dibidenduak banatu behar zaie.

Badira beste banku batzuk irabazien zati bat zeregin sozialetara bideratzen dutenak...

Bai, baina, hori hala izan arren ere, akaso, irabaziak armagintza enpresak finantzatzetik atera dituzte edo beste inbertsio ez etikoetatik. Guk egiten dugun guztia, ingurumena errespetatuz, modu etikoan, zintzo jokatzuz eta gizartearendako kaltegarriak izan daitezkeen ekimenak ez babestuz egiten dugu.

Banka edo kutxa ohikoek zela ikusten zaituzte?

Ez dakit zer esan, baina argi dago gure ekarpena balio berezia dela, beste inork eskain ez dezakeena. Interes tipoetan gu baino erakar-garriagoak eta lehiakorragoak izan daitezke, baina etikari buruz badihardugu ez. Gurera etorri dira hainbat bezero, diru askorekin, beste banku batzuek askoz ere errentagarritasun ekonomiko handiagoa eskaintzen zietenak. Balioak eta etika lehenesten dituzte eta horren aurrean ezin dute lehiatu beste bankuek.

Aldaketa beharrezkoa da, hortaz?

Erabat premiazkoa eta egin behar da lehenbailehen; orain hobeto gero baino. Munduan daude

milioika pertsona eredu aldatzea behar dutenak. Hau ez da jasangarria. Planeta suntsituta dago. Milioika pertsona pobrezia erabatekoan... Eredua zaharkituta dago eta etorkizuna kontzientziaz eta kooperazioaz eraiki behar da. Lehiakortasunetik kooperaziora pasatu behar gara. Ekonomia ezin dezake merkatuak arautu; geuk, pertsonok, erabaki zintzo, etiko eta justuekin, arautu behar dugu merkatua. Aldaketarako konpromisoa da paradigma berria eta funtzionatzen du. Aldaketa abian da. Ez dakit noiz izango dugun masa kritiko nahikoa al-daketa erradikala lortzeko, baina bidean da, abian da.

Bankaren sektorean lanean ibilia zara lehenago ere, ezta?

Bai, 30 urtez aritu naiz. Eta nire esperientzia baliatu nahi dut proiektu berri honetan. Blog bat daukat, nire liburuaren izenburu bera duena, eta hor saiatzen naiz ekonomiaz jarduten modu erraz eta ulergarrian; labur baina sakoneko pentsamenduak azaleratuz. Errezeta konkretuak proposatzen ditut, praktikoa eta egingarriak, edozeinendako modukoak, munda-hobera aldatzeko.

Diruak, kapitalak ez dauka kontzientziarik?

Kontzientzia pertsonok dugu eta aldaketa geure esku dago. Hiritarrok badugu boterea gauzak aldatzeko, batzuetan ohartu ez arren. Gizarte zibilak erabaki kontzienteak hartzen dituenean, kontsumitzeko orduan kontzienteki erabakitzen duenean, botoa ematerakoan baino botere handiagoa dauka. Sarritan, bankuak kritikatzin digu, baina, gero, han ditugu gure aurrezkiak, hara goaz diru eske. Ez kritikatu, egin, eragin, hartu erabaki kontzienteak. Aldaketarako beldurra edo erresistentzia gainditu behar dugu.

Finantza sektorea hankaz gora dago, hiritarren zergekin bankuak diruz-lagundu behar dugu... Zuen bideragarriagoa da?

Bai. Jendea suminduta dago, lotsagarria da, baina haserre egotetik erabakiak hartzera igaro beharra dago. "Nire diruarekin ez" esateko ordua da. Krisiari esker, gauza asko alda daitezke.

Irabaziak bertako proiektuak finantzatzeko darabilkizue, ala kanpoko proiektuetarako?

Ez, ez, hemen bertan, gauden tokietan, inbertitzen dugu. Gure webgunean ikuska daitezke proiektu horiek. Horretaz gain, mikro-kredituak ere eskaintzen ditugu munduko 50 herrialdetan.

"Gure bankuko diru guztia erabiltzen dugu balio sozialeko proiektuetan"

"Etorkizuna kontzientziaz eta kooperazioaz eraiki behar da"

"Merkatua geuk arautu behar dugu erabaki zintzo, etiko eta justuekin"

"Hiritarrok badugu boterea gauzak aldatzeko, sarritan ez ohartu arren"

HERRIAK

ARRASATE

Inauteriak, 'made in' Oñati

- Inauterietako lantaldeak, Oñatz dantza taldeak eta herriko musikariek antolatu dute
- Jantzi, doinu, dantza eta pertsonaia berriak, herriko inauteri propioak egiteko asmoz

MAIALEN GONZALEZ | ARRASATE

Oraindik urte berrian sartu ez garen arren, Oñatin dagoeneko hasi dira datorren urteari begira lanean. Urteak eman ditu Oñatiko Oñatz dantza taldeak Inauterietako zapatuan Euskal Herriko bazter ezberdinetako Inauteriak kaleratzen. Herritarrekin batera Lantzeko Inauteria, Lapurdiko jauziak eta sorgin-dantza kalera-tu izan dituzte.

Urte batzuetako etenaldiaren ostean, Inauteri horiek berriro antolatzeari ekin zioten. "Bertaratu zen jendeak dantzarako gogo-a zuen, ilusio handiz zetorren. Hori ikusita, Oñatik bere Inauteri propioa behar zuela argi ikusi genuen" adierazi du Maite Irizarrek, Oñatz dantza taldeko kideak.

Lantalde plurala eta herrikoa

Oñatz dantza taldeko kide, dantzari ohi, musikari eta zenbait herritar elkartu, eta martxoan hasi ziren lanean.

Lehenik eta behin, informazio bilketa sakona egin dute. Oñatiko historian Inauteriek dituzten aurrekariak ikertu dituzte. Gerardo Elorza historialariaren laguntzarekin hainbat datu jaso ditugu. Horien artean, herrian Inauteriek izandako presentzia sekula ez dela aipagarria izan. Hori dela eta, Euskal Herriko Inauteriei buruzko dokumentazioa jasotzen hasi ziren. Horretarako, Oier Arabaolatzarekin elkarlanean aritu dira. Eibartarra euskal



Oñatiko Inauteri propioa lantaldeko kideetako batzuk, proiektuaren aurkezpenean. | ARANTZAZU EZKIBEL

dantzetan aditua da, eta hainbat datu eman dizkie Inauterietako jantziei dagokienez. Haren esanetan, Euskal Herriko eta Europako Inauterietan arketipoak daude; ezaugarri komun batzuk, alegia. Esaterako, neguko jaiak izatea, identitatea gordetzea aurpegia estalita, dantzarien arropa zuriak eta apaingarriak koloretsuak izatea, eta abar.

Jantzi berriak

Inauteri propioa izanda, jantziak ere bereziak eta propioak izango dira. Inauterietako ezaugarri komun batzuk erabili dituzte diseinua definitzeko. Bi jantzi berri sortu dituzte: musikarientzako, bata; dantzariendako, bestea.

Dantzarietako dagokienez, alkandora eta praka txuriak jantziko dituzte. Gainera oihalezko edo artilezko kolore biziak, zuritasunari kontrastea egiteko, Inauterietako ukitua emanda. Oinetan, berriz, zaku oihalarekin egindako polainak erabiliko dira, koloreekin apainduta. Aurpegia estaltzeko eta identitatea gordetzeko, oster, borladun txapel beltzari *fleko* berde batzuk jarriko dizkiote.

Musikarien jantzia, aldiz, apur bat serioagoa dela azpimarratu dute. "Prakak, borladun txapela eta kapa beltzak jantziko dituzte. Hala ere, eta horrenbesteko iluntasun honek Inauteri kutsua har dezan, kapak azpitik kolore bizidun oihal bat darama, Inauteri kutsurik gal ez dezan".

Bai dantzarien eta baita musikarien kasuan ere, emakumezkoek eta gizonezkoek jantzi berberak izango dituzte. "Gizonezko zein emakumezko, guztientzat berdina izango den jantzia egokiena izango zela pentsatu genuen", adierazi du antolakuntzako Lier-ni Olmedok.

Musika, dantza eta pertsonaia

Iñaxio Ibarrondo arduratu da musika alorra antolatzeaz. "Proiektua aurkeztu genion, eta, lehenengo momentutik, bere laguntza izango genuela adierazi zigun. Hainbat kantu proposatu zizkigun eta gure ideietara egokien moldatzen zirenak aukeratu genituen", adierazi du antolakuntzako. "Aurten kaleratuko diren dantza berrien doinuak haren aitak, Antonino Ibarrondok, 15-20 urte bitartean sortutakoak dira. Doinu hauek Oñatiko Inauterien sinbolo identitario bihurtzeko helburuarekin aukeratu dira: *Kale Zarra*, *Bixamona*, *Ume haundiak*, *Gure Artzaia*...".

Bestalde, euskal dantza ezberdinetako urratsak jaso eta batekoak eta bestekoak uztartuz, dantza berriak sortu dira aurtengo. Pertsonaia berriak ere badira. Hain zuzen, Oñatiko kondea eta kondesa gehituko dira aurten. Herrian urte askoan izan duten nagusitasunaren eta harrokeriaren erakusle izango dira. Hala ere, egunaren bukaerarako rola aldatu egingo dira eta herri-tarrak izango dira beraiek menpe hartuko dituztenak.

ESANAK

"Herritarrek duten ilusio eta gogoak ikusteak gure lana errazten du"

MAITE IRIZAR | ANTOLAKUNTZA

"Birziklatutako oihalekin inauterietako jantzi aproposak egin daitezke"

LIERNI OLMEDO | ANTOLAKUNTZA

Birziklapena bultzatuz

Jantziak egiteko, birziklatutako oihalak erabili nahi izan dituzte. Horrela, etxean dauden trapu eta ehun zaharrei erabilera emango zaie, edozeinek izan baititzake eskura alkandora edota gortina zaharrak, inauterietarako jantzi aproposak egiteko. Oihal nobleen erabilpenari ere berebiziko garrantzia eman nahi diote.

Bai musikarien, eta baita dantzarien jantzien diseinuan eta konfekzioan, Lezuri Ormazabalek, Itziar Arkauzek eta Mirari Sagarzazuk hartu dute parte.



Diseinatutako jantzi bat. | A.E.



Euskara Planaren elkarlan hitzarmenaren sinatzaileak, astelehenean Kulturaten egindako ekitaldian. | ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Euskara bultzatu, elkarlana eta modu berriak oinarri

- Euskara Planaren elkarlan hitzarmena sinatu zuten
- Euskalgintzak erabakitzeke ahalmena izango du

Z.V.D.M. /J.B. | ARRASATE

Aspaldikoa da Arrasateko Udaren eta euskalgintzako eragileen arteko harremana. Duela urtebete, baina, lan modu berriak zehazteko asmoz hasi ziren proiektuari forma ematen. Bada, astelehenean, Euskararen Eguna aitzakia hartuta, izaera ofiziala hartu zuen ekimenak; Arrasateko Euskara Planaren elkarlan hitzarmena zinpetu zuten.

Jende ugari hartu zuen parte Kulturateko areto nagusian egindako ekitaldian. Mahaian egon ziren Oskar Elizburu Kontseiluko lehendakaria, Inazio Azkarragaurizar alkatea eta Eñaut Muxika, AEDko lehendakaria. Elkarlan hitzarmeneko kide dira AED, Arizmendi Ikastola, Arrasate Herri Eskola, Arrasate Institutua, Arrasateko Udala, Deba-goieneko AEK euskaltegia, EHE elkarte, Ekin Emakumeak, Emun, Goiena Komunikazio Taldea, Mondragon Goi Eskola Politeknikoa eta Txatxilipurdi.

Eraginkortasuna helburu

Eraginkortasuna da hitzarmenaren helburu nagusia: "Euskara biziberritzeko ahaleginei ahalik

eta etekin handiena ateratzea; legealdi-etenak saihestuz eta indarrak, jarduerak eta proiektuak lerrokatuz".

Inazio Azkarragaurizar alka-teak adierazi zuenez, hitzarmena "hausnartzeko, eztabaidatzeko eta proposamenak egiteko tokia" izango da: "Sinatzen duten erakundeek proposamenak aintzat hartuko ditu Udalak bere ekintza planak egiten dituenean".

"Zutabe on bat izan daiteke"

Oskar Elizburu Kontseiluko lehendakariak gogora ekarri zuen Arrasateko euskalgintzako eragileen eta Udalaren arteko harremana ez dela gauza berria. Izan ere, Elizburuk uste du herri ekimenetik eta administrazioetik, bietik, egin behar dela lan: "Langintza hori eraginkorra izatea nahi baldin badugu, norabide argian jarri beharko genuke; hau da, jendea euskararen mundura erakartzeko, euskarari prestigioa emateko eta, azkenik, eroso eta gustura erabiltzeko norabidean".

Era berean, Elizburuk gaineratu zuen ideiak partekatzea garrantzitsua dela, baina baita erabakiak ere: "Hitzarmen honekin erabakitzeke ahalmenaren zati bat ematen zaio euskalgintzari eta lehen aldia da hori egiten dena. Hau da, euskalgintzaren

eta administrazioaren arteko lehen harrietako bat da. Zutabe on bat izan daiteke gauzak, agian, lehen baino egokiago egiteko".

Amaitzeko, Elizburuk dei egin zien herritarrei euskararekin bat egin dezaten: "Euskaraz bizitzeko nahi horretan sar gaitezen guztiok, ea lortzen dugun gero eta herritar gehiago izatea, euskaraz bizitzea gero eta ohikoagoa izan dadin".

Euskaraz bizi ez direnak erakarri

Bestalde, Eñaut Muxika AEDko lehendakariak adierazi zuen beharrei erantzuna emateko erakunde ezberdinak elkartu izana pozgarria dela: "Egia da orain arte lan sakona eta mardula egin dela, baina behar bat egoten jarraitzen du, eta hitzarmena da horren erakusgarri".

Muxikak gaineratu zuen sinatzaileen nahia Arrasate euskal hiztunez betetzea dela, eta euskaraz bizi ez den jendea erakarri beharra azpimarratu zuen. Euskalgintzatik hori lortzeko indarra egiten jarraituko dutela berretsi zuen AEDko lehendakariak.

Berbaldien ostean, bertsoa osatu zuten sinatzaileek; horra leloa: *Euskararen Eguna esnatu da abenduak astelehen, paper batean islatzeko gure izan eta izen*. Jarraian zinpetu hitzarmena.

Anton del Campo | Astronomia-zalea

"Eguzkiaren kokapenak San Juan bataiatzailea argitzen du urtean behin"

Arrasate Zientzia Elkarteak antolatuta, zerua izan zuen hizpide atzo Del Campok Kulturaten

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Jaiotzez bilbotarra izan arren, Anton del Campok 50 urte baino gehiago daramatza Arrasaten bizi izaten (Bilbo, 1944). Arrasate Zientzia Elkarteke bazkide da eta atzo Kulturaten izan zen Arrasateko iragana astintzen hitzaldi zikloaren barruan hiru-garren saioa eskaintzen: *El cielo desde Mondragón*.

Noiztik erakarri zaitu astronomiak?

Oso gaztetatik. Batxilergoan hasi nintzen zeruaz interesatzen, eta orain erretiratuta nagoenez, askoz denbora luzeagoa daukat nire betiko zaletasun horri berri-ero ere heltzeko. Gaztetatik sortu zitzaidan ikusmin horrek zerua gutxi gorabehera ulertze-eraman nau, eta, behin astroak ulertzen hasten zarenean, gehiago jakin gura duzu.

El cielo desde Mondragón izan da hitzaldiaren izenburua. Zer da, bi hitzetan, azaldu duzuna?

Planteamendu orokorra izan da Arrasatetik ikusten den zerua. Gero, hitzaldia lau zatitan banatu dut: lehenengoan, Arrasatetik –eta edozein tokitatik– ikusten diren astroen tamaina eta haiekiko dagoen distantzia aztertu dugu; hori bai, zenbaki larregi erabili barik. Bigarren zatian, atzera egin dugu historian; hau da, gure arbasoek zeruari nola begiratzen zioten jakin gura izan dugu. Lehen euskal egutegien gainean egin dugu berba, besteak beste. Esan beharra dago egun kontserbatzen direnak harrizkoak direla; ilargiaren araberako egutegiak dira.

Horren ostean, aurtengo abuztuan gertatu behar zuen fenomeno hura, Marte ilargia bezain handi ikusiko zela ziotena, zergatik gertatu ez zen azaldu dugu.

Hiru multzo horiez gain, Arrasateko parrokiaren ere egin duzu galdialdia.

Hala da. Joko bat eginez azaldu diogu entzuleari zertan datzan ikuskizun hori. Arrasateko parrokiaren bertan, San Juan egunean, eguzkiaren argiak



Anton Del Campo. | J.B.

San Juan Bataiatzailea argitzen du 20:00etan puntuan –ordu ofiziala–. Eguzkiaren kokapen zehatzak ahalbidetzen du fenomeno hori, eta urtero gertatzen da. Baina ez da Arrasaten bakarrik gertatzen, beste hainbat lekutan gertatzen da, batez ere eliza erromanikoetan. Horrek erakusten digu gure arbasoek aspalditik zerura begiratzeko ohitura zutela.

Hasiera baten, behintzat, ez dirudi gaia ulertzeko erraza denik...

Hitzaldia modu ulerterrazean ematen saiatu naiz. Gure artean esaten dugun moduan, letretakoak direnendako moduko hitzaldia prestatu dut, zenbaki eta ariketa matematiko larregi planteatu barik.

Espero ez zen arrakasta

Antolatzaileak oso pozik daude hitzaldi zikloak orain arte izan duen harrerarekin: "Ez genuen horrenbeste jende espero, jendeak zutik geratu behar izan du. Asko eskertzen dugu jakin-min hori", dio Arantza Otaduidi. Hurrengo hizlaria Jose Mari Velez de Mendizabal izango da; Miguel de Madinabeitiaren gainean egingo du berba. Hilaren 11n, Kulturaten (19:00).

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

Garun-paralisia daukan Naiara Agredaren aldeko elkartasun kontzertua hilaren 26an gaztetxean

Garun-paralisia daukan Naiara Agreda 8 urteko neskatila arrasatearrari laguntzeko elkartasun kontzertua antolatu dute abenduaren 26rako. Sarreran batutako diru guztia Naiarari laguntzeko izango da. Gaixotasunak eragiten dizkion beharrak ase eta haren bizitza eramangarriagoa izan dadin etxean obrak egin behar dituzte. Kontzertua gaztetxean izango da, 22:00etan hasita, sarrerak 5 eurotan salduko dira eta honako talde hauek joko dute: Arkada Social, Rat-zinger, Des-Kontrol eta Screamer & Sinners.

Ibai-Artek denetariko produktuz osatutako Gabonetako 100 saski zozketatuko ditu hil osoan

Urtero moduan, Ibai-Artek kanpaina berezia antolatu du Gabonetarako. Saltokiak argizatzen hasi dira dagoeneko, Gabonetako argidun bola eta errezelekin. Gainera, Ibai-Arte txartela erabiltzen duten bezeroen fidelitasuna saritzeko, hil osoan zehar 100 otzara zozketatuko dituzte, denetariko produktuekin; hilaren 21ean banatuko dituzte, Herriko Plazan (13:30). Gainera, edozein erosketa egiten duten Ibai-Arteko bezeroen artean Errege Egunerako loteria txartelak oparituko dituzte; 66.828 da aurtengo zenbakia.

Tamara Perez | Ekin Emakumeak elkarteko eragilea

"Taloa jateaz gain, polita da historia eta prozesua ezagutzea"

- ▶ Abenduaren 15ean, zapatua, goizeko hamarretatik aurrera
- ▶ Orain arteko parte hartzearekin gustura, bide beretik jarraitu nahi dute

MAIALEN GONZALEZ | ARRASATE

Elkartearen sorreratik urtero-urtero antolatu den ikastaroa da talogintza tailerra. Historian zehar emakumeek izan dituzten funtzioak eta ardurak kaleratu eta prestigioa eta erabilera ematea da elkartearen helburuetako bat. Bada, asmo horri eutsiz, aurten ere talogintza ikastaroa antolatu dute.

Elkarteak antolatutako ekintzei dagokienez, klasiko bihurtu da talogintza ikastaroa.

Bai, eta luzaroan izan bedi! Aspal-di ez genuen herri osoari zuzenduta antolatzen. Euskaldunon elikaduran eta ohituretan zeresan handia izan duen jaki bat izanik, polita da tartetxo bat eskaintzea. Alde batetik, berreskuratu, taloa egiteko prozesua ikasita; ondoren, kaleratu, talo postuak jarrita; eta, azkenik, zabaldu, ikastaroak eta tailerrak bideratuta.

Beraz, behin ikastaroa amaituta, postua jartzeko asmoa ere baduzue?

Santamasak ate joka ditugula-eta, aukera ezin hobea da talo-



Tamara Perez, talogintza ikastaroko materialarekin eta kartelarekin. | M.G.

"Santamasak gertu ditugula, aukera paregabea da taloak egiten ikasteko"

gintzan trebatzeko eta, horren ostean, Santamasetan jarriko dugun talo postuan parte hartze-ko. Horrela, talogintzan trebatzearekin batera, herritarrek herriko jaiak ezagutu eta horietan parte hartzea nahi dugu.

Zer landuko da ikastaroan?

Praktika ororekin gertatzen den moduan, honetan ere aurrez azalpen teoriko bat jasotzea beharrezkoa da. Horrela, Marije Isasmendik, Maite Uribarrenek eta nik neuk azalpen teoriko labur bat emango dugu: artoaren eta taloaren historia laburra, taloa nola egiten den, zein material behar diren edota zein presentzia izan duen euskal jendartean. Behin teoria ikasita, nork bere taloa egingo du, eta, bukatzeko, nola ez, dastatzeko ordua helduko da. Lagunek bost euro izango dira, materialaren kudeaketarako.

Gustura zaudete jendearen harre-arekin?

Normalean, 10-15 bat lagun elkartzen gara. Santamasez gain, herriko auzoetako jai batzuetan ere jartzen dugu postua, eta ikastaroan parte hartutako batzuk animatzen dira laguntzera.

Eragile berri baten bila ari zarete.

Zer behar da hautagai aproposa izateko?

Arlo sozialarekin sentibera izatea ezinbestekoa da. Izan ere, askotariko errealitate eta bizipenak ezagutu eta horiekin lan egin behar da. Asko ikasten da, eta polita da herritarrendako zerbitzu bat ematen ari garela ikustea. Betiere, emakumearen ikuspuntutik abiatuta, beste hainbat gai jorratzen ditugu, hala nola etorkinak, hezkuntza, aisialdia, kultura eta euskalgintza. Horrez gain, administrazio zein kudeaketa lanetan ere iaioa izan behar da.

Urtero moduan, badatoz San Nikolas eguna eta boloa


Urte amaieran sartuta, herriko txikitxoek Olentzeroren zain daude dagoeneko. Hala ere, abenduan sartzearekin batera, San Nikolas bertan dago; eta, nola ez, urteroko boloa. Tradizioari jarraituz, baserritar jantzia prestatu, etxean dagoen poltsarik handiena poltsikoan sartu eta *San Nikolas, triskilistras... lukainka, txorizo...* doinupean, abenduaren 6an, eguna, Herriko Plazan izango da boloa. Eurria eginez gero, Uarkapen elkartuko dira, hamabietan.

Besaide MEk zuzendaritza batzorde berria eratuko du

Besaide Mendi Elkarteak jakinarazi duenez, gaur egun dagoen zuzendaritza batzordeak urte honen amaieran bukatuko du lau urteko agintaldia. Bada, elkarteak antolatzen dituen ekintzak bideratzeko dagoen lantaldea lanean jarraitzeko gogoz dagoela azpimarratu nahi izan dute. Hala ere, zuzendaritza batzorde erdia berritzea beharrezko ikusten dute, ideia berriekin batera elkarteak aurrera egiteko eta lanean jarraitzeko, besteak beste.

aurreztu
gastuetan
%50

eska iezaiguzu ikerketa
bat konpromezurik gabe!



www.fincasdonosti.com

Jarri zure komunitatea eskurik onenetan Especialistak gara

Zure komunitatearentzako onena

eguneko 24 orduetan, urteko 365 egunetan

- Jabekideen komunitateen kudeaketa integrala
- Bulego-eraikinen kudeaketa integrala
- Garaje-solairuen kudeaketa integrala
- Atzeratutako kuotak kobratzeko kudeaketa
- Alokairuen kudeaketa
- Eraikinen ikuskapen teknikoak: EIT
- Garbiketa-zerbitzuak
- Mantentze-lanak eta konponketa zerbitzua eguneko 24 orduetan.
- Bulegoa irekita eguneko 24 orduetan



Fincas Donosti-Arrasate

Garibai 6B Bis ARRASATE

Tel eta Faxe.: 943 252638

E-posta.: arrasate@fincasdonosti.com

www.fincasdonosti.com



Osoko bilkuren aretoan egin zuen batzarra Talde Iraunkorrak zapatuan. | GOIENA

Plan Estrategikoaren gaineko bilera egin du Talde Iraunkorrak

Zapatuan batu ziren, 15 lagun, alde batetik, aurtengo betetze maila baloratzeko eta, bestetik, 2013ko ildo nagusiak zehazten laguntzeko

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Urtea bukatzeaz dagoela, 2010-2020 epealdiko Plan Estrategikoaren jarraipen lanak egiteko Herritarren Talde Iraunkorra bildu nahi izan du Udal Gobernuak. Horretarako batzarra deitu zuen aurreko zapatarako, abenduaren 1ean, alde batetik, aurtengo helburuen betetze maila aztertze eta baloratzeko; eta bestetik, datorren urterako ildo nagusiak zehazten laguntzeko.

Herritarren ekarpenak

Osoko bilkuren aretoan egin zuten batzarra eta Talde Iraunkorreko 15 kide elkartu ziren. Elhuyar aholkularitza taldeak bideratutako lau orduko lan-saioan, hainbat ondorio atera zituzten, ondoren, datorren urterako Kudeaketa Plana egiteko kontuan hartuko

direnak. Ekimen horren bitartez, herritarren ekarpenak egunero kudeaketan kontuan hartzen direla bermatu nahi du Udal Gobernuak.

Aurrekoaren jarraipena

Bergara 2010-2012 Plan Estrategikoa txostena herritarren parte-hartze zabalarekin osatu zen aurreko agintaldiaren bukaeran. Gero, 2011n, oraingo Udal Gobernu taldeak bere agintaldira ekarri nahi izan zuen plan hori eta beste parte-hartze prozesu bat ireki zuen 2011ko udazkenean, planeko ekintzak zehazteko asmoz.

Azken horren ondorioak iazko azkeneko osoko bilkuran aurkeztu zituzten herritarrek.

2012. urtea hastearrekin batera herritarrekin osatutako Plan

Estrategikoa udal langileei aurkeztu zitzaion, eta, hura osatzeko gonbita egiteaz gain, bertan ezarritako helburuak gauzatzeko 2012ko Kudeaketa Plana egiteko eskatu zitzaion.

Udal Gobernutik azpimarratu dutenez, lehendabiziko aldia da Bergaran herritarren parte-hartzearekin Plan Estrategikoa bat egin dela, eta, "egoera ekonomikoak hainbat proiektu egitea galaraz dezakeen arren, badira beste hainbat, antolaketa ingurukoak bereziki, aurrekonturik barik egin daitezkeenak".

Hori horrela izanik, Udal Gobernuaren nahia da "krisiak planean eragin ditzakeen ondorioak ahal den heinean leuntzea eta bideragarriak diren proiektuak bultzatzea".

Iker Gomez dantzari eta koreografoak 'La danza del cisne' egingo du

M.B. | BERGARA

Iker Gomez dantzari, koreografo eta bideo-errealizadoreak *La danza del cisne*, 2010ean sortu zuen proposamena, erakutsiko du domekan, hilak 9, 19:30ean, Zabalotegi aretoan.

Eibartarrak Txaikovskiren obra hori hartu du abiapuntutzat, eta haren inguruan bere unibertso askea eraiki du. Pieza eszeniko horretan, gaur egungo kodean berrantzezten du balletko hegazti preziatuen, horrenbeste formatu eta

espresio modutan erabilitako hegazti preziatuenak.

Hiru antzezle, arkitektura eta bideoaren integrazioa ekin-tzan, gaur egungo dantza, antzezen fisikoak, musika zuzenean, testua, aktibismo existentziala eta umore-dosi ekidinezina batzen ditu bere baitan Iker Gomezen *La danza del cisne* ikuskizunak.

Emanaldiak ordu eta laurden iraungo du, gutxi gorabehera, eta sarreraren prezioa 8 euro da.



Iker Gomez eta Nerea Alberdi, antzezlanean. | GOIENA

Udaleko Gazteria Zerbitzuak dei egiten die DBHko 3. eta 4. mailetako ikasleei Kabalgatan parte hartzeko

Urtarrilaren 5erako, zapatua, Errege Kabalgata antolatuko du Udalak, ohi bezala. Bada, Kabalgatarako suziri-eramaileak, baserritarrak, soldaduak... behar dituztela eta, dei egiten diete Gazteria Zerbitzutik DBHko 3. eta 4. mailetako ikasleei parte har dezaten. Interesatuak ekorta@bergara.net helbidera idatz dezakete, edo kultura etxeko 943 77 91 60 telefono zenbakira deitu. Gazteria Zerbitzutik azaldu dutenez, abendu bukaerarako batzarra deituko dute Kabalgata antolatzeko.

disdira

ile-apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

BERGARA
MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enjimerak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

UGARTE
AROTEGIA - ALTZARIAK

AROTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA




ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

Gabonetako apaingarriak egiteko tailerra egubakoitzean Muniben

A.B. | BERGARA

Duela pare bat aste Udalak egindako deialdiak izandako arrakasta ikusita, Gabonetako apaingarriak egiteko bigarren tailerra egingo dute egubakoitzean, hilak 7. Munibe plazan egin dute hitzordua, 17:00etatik 19:00etara.

Atez atekoaren gaineko informazio bulegoaren inaugurazio egunean egin zuten lehenengo tailerra eta 80 neska-mutiko inguru gerturatu ziren; Udalarren asmoa da oraingoan ere beste horrenbeste elkartzea: "Poz handia hartu genuen horrenbeste ume eta guraso gerturatu zirela ikusita. Haiek izan ziren tailerra errepikatze-

ko eskatu zutenak. Eurek egin-dako apaingarriak Gabonetan herria apaintzeko erabiliko zirela jakiteak ilusio handia egin zien txikitxoenei", adierazi du Ingurumen zinegotzi Leire Iruinek.

Munibe plazara gerturatzen direnek, oraingo honetan, ez dute ezer eraman beharrik izango. Udaleko ordezkariak harrituta daude azken asteetan jaso duten material mordoarekin: "CDekin, kafe-makinetako edalontziekin eta plastikozko edalontziekin egiten ditugu apaingarriak, eta izugarria izan da jatetxeek eta hainbat enpresak erakutsi dute inplikazioa. Material pila bat jaso dugu".



Josu Leturia, udaletxeko arkupean. | ARRITXU BARRUSO

Josu Leturia | Bergara Garbia plataformako kidea

"Udal hauteskundeetako hautesleen %40 atez atekoaren kontra daude"

Bergara Garbia plataformakoak alkatearekin batuko dira atez atekoa bertan behera uzteko eskatzeko

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Atez atekoaren kontrako eta 5. edukiontziaaren aldeko Bergara Garbia plataformak alkatearekin bilera eskatu berri du, sistema berria bertan behera uzteko eskatzeko. Plataformako kide Josu Leturiarekin hitz egin dugu.

Hedabideetara bidalitako prentsa oharrean diozue Udal Gobernuak atez atekoa inposatzen ari dela.

Bai. Haserre gaude eta ikusten dugu herritar asko ere oso haserre daudela. Sinadura bilketa

egin genuen eta 4.691 batu genituen. Kontuan izan behar da azken udal hauteskundeetan 11.802 hautesle egon zirela; beraz, argi gertatu da hautesleen %40 atez atekoaren aurka daudela. Datu esanguratsua da eta badirudi Udal Gobernuari berdin diola.

Herri kontsulta exijitzen diozue Gobernuari.

Hala da. Askotan eskatzen dugu, esaterako Madrilen, euskaldunek erabakitze eskubidea dugula, eta horixe bera defendatzen dute

gaur egun Udal Gobernuan daudenek. Beraz, guk uste dugu geuk ere erabakitze eskubidea dugukagula.

EAJk osoko bilkura monografikoa eskatu du. Zer iruditzen zaizue?

Oso ideia ona dela uste dugu. Azken finean, plataformako kideak herritar xumeak gara, eta, askotan, galdu egiten gara lege eta protokolo kontuetan. Oposizioko alderdi nagusia gure alde izateak asko lagunduko digu.

Alkatearekin bilera eskatu duzue. Jaso duzue erantzunik?

Alkatearekin bildu nahi gara gure iritzia azaltzeko eta atez atekoa bertan behera uzteko eskatzeko. Suposatzen dut laster jasoko dugula erantzuna.

Protesta ekintzarik egitea aurreikusten duzue?

Bai. Hori izango da gure hurrengo pausoa. Sinadura bilketa egin genuen eta horiek Udalean aurkeztu genituen. Orain, gure helburua da atez atekoaren kontra dauden herritarrei euren desadostasuna erakusteko aukera ematea. Dena dela, oraindik zehaztu gabe dago protesta egiteko bide hori zein izango den.

Legazpikoa bezalako manifestaziorik egiteko asmorik bai?

Debagoien mailako manifestazioa egitea da asmoa, baina oraindik gauza asko daude lotzeko. Herri gehienetan daude atez atekoaren kontrako plataformak eta guztiok ados ipini beharko dugu, herria eta eguna adosteko. Dena lotuta dagoenean, hedabideen bitartez egingo dugu deialdia.

"Asmoa litzateke Debagoien mailako manifestazioa egitea"

Harrera Elkartea aurkeztuko dute abenduaren 12an

Hurrengo egubakoitzean, abenduak 12, Harrera Elkartearen aurkezpen ekitaldia egingo dute Irizar jauregiko hirugarren solairuan. Harrera Elkarteko ordezkarien hitzetan, "euskal preso eta iheslariak etxeratzean, duintasunez bizi ahal izatea du helburu elkarte honek, horretarako elkartasuna oinarri duelarik".

Aurkezpen ekitaldia 19:00etan izango da eta ondoren luntxa egongo da Artatse elkartean. Harrerako kideek herritar guztiak gonbidatu nahi dituzte Irizar jauregian egingo den ekitaldira.

Jardunen 21. Amodiozko Gutunen Lehiaketa abian da

Idazle erromantikoak has daitezke boligrafoa hartu eta gutuna idazten. Abian da Jardun Euskara Elkartek antolatutako Amodiozko Gutunen Lehiaketa. Aurtengo 21. edizioa izango da.

1998an edo lehenago jaiotako guztiek parte hartu ahal izango dute lehiaketan eta gutunak DIN A-4 formatuko orrietan aurkeztu beharko dira, eskuz edo ordenagailuz idatzita. Jardunek kultura etxean duen bulegora bidali behar dira lanak –Errotalde jauregia z/g, 20570 Bergara– edo amodiozkogutunak@euskalerria.org helbidera.

Mujika
gozotegia



Gozogintzan nahi duzuna
Eskatu artisautza eta tradizioa.

Artekalea 3 - **BERGARA**
Tel.: 943 76 10 34
mujikagozotegia.blogspot.com
mujikagozotegia@gmail.com



Iturgintza
Beregintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. **BERGARA**
Tel.: 943 39 53



Leiho isolatzaileak
PVC, aluminioa, beira, egurra

Aitor Zabaleta Agirre
Tellería 21 - C-1 Pab
BERGARA

E-posta.: txipi@txipi.com
www.txipi.com

606 58 18 10 - www.txipi.com

PINTXOAK eta
OGITARTEKOAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g
Bergara
943 76 07 92



Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29



Gosari bereziak
09:00etatik zabalik!

Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11

- Afariak
- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Hanburgesak
- Sandwichak
- Entsaladak

Larrañan ez jokatzearabaki dute beteranoek

Beteranoetako taldeek diote erabakiaren arrazoia dela Larrañan ezin dela hamaikako futboleant jokatu

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Beteranoak HFT txapelketan jokatzen duten herriko taldeek erabaki dute Larrañako kirolgunean ez jokatzeara. "Arrazoia da kirolgune horrek ez duela hamaikako futboleant jokatzeara ahalbidetzen. Larrañan jokatzeara esan gura du bederatziko futboleant jokatu behar dugula, eta guk gurago dugu orain arte moduan jarraitu", azaldu digute Beteranoak HFTko zuzendaritzatik.

11 kontra eta 6 alde

Joan den astean hartu zuten erabakia herriko futbol txapelketan parte hartzen duten taldeek. 18 taldek osatzen dute txapelketa hori. Horietatik 17 joan ziren bilerara, eta, bozketa egin ostean, haxe izan zen emaitza: 11 talde Larrañan jokatzeara kontra azaldu ziren eta beste sei taldeak, berriz, alde.

Han hartutako erabakia idatzi baten jaso zuten astelehenean zuzendaritzako kideek, Udalari bidaltzeko. "Larrañako obrak hasi



Larraña kirolgunearen obrak aurrera doaz. | O.E.

aurretik egon ginen udal ordezkariekin berbetan, eta eskatu genien proiektua aldatzeko, hamaikako futboleant jokatu ahal izateko. Udalak, baina, erantzun zigun hori ez zela posible, Larrañako kirolgunearen eremuak berak ez duelako dimentsio nahikorik hori ahalbidetzeko. Taldeek, hala ere, hamaikako futboleant jokatu gura dutela adierazi dute, eta erabaki

dute Larrañan ez jokatzeara", dio. "Larrañan ez jokatzeara arrazoia bakarra da, hamaikako futboleant jokatu ezina. Bestela, gustura joango ginatke. Badakigu erabaki honek Azkoagainen jokatzeko ordutegian eragina izango duela, baina erabaki dugu hamaikako futboleant jokatzeara jarraitzea, ordutegiak okerragoak izan arren", gaineratu du.



O.E.

Familia giroan ere kantuan, euskaraz

Makina bat guraso, seme-alaba eta herritar elkartu zen astelehenean, Euskararen Egunean, udaletxeko arkupeetan, familia giroan euskaraz abesteko. Euskararen Eguna ospatzeko antolatutako hitzorduetako izan zen hori. Egun osoan, herriko ikasleek elkarrekin jolas egin eta jardun zuten, euskaraz.

Soziologia Institutua erakutsiko dute hilaren 11n

Masterra egin gura duen oñatarrarendako beka emango du Udalak hurrengo ikasturtean ere

O.E. | OÑATI

Nazioarteko Lege Soziologia Institutuan zer ikasten den eta nolako eskaintza eta baliabideak dituen erakusketo, bisita gidatu berezi bat egingo dute hilaren 11n, martitzena. Instalazioak ikusi, liburutegia bisitatu... eta edozein zalantza argitu edo informazioa eskatzeko bisita izango da. Interesatuta dauden guztiak daude gonbidatuta. Egunean bertan, gainera, Tasmaniako kultura genozidioari buruz hitz egingo du Angela Melvillek, Institutuko zuzendariak.

Oñatiko Udalaren beka

1989an hasi zuen bere ibilbidea Oñatin dagoen Nazioarteko Lege Soziologia Institutuak. Harrezkero, mundu osoko 400 ikaslek egin dituzte ikasketak hor. Momentu honetan ere,

11 herrialde ezberdinetako 13 lagun ari dira, martxora bitartean, nazioarteko masterra egiten.

1994tik hona, Oñatiko ikasleak ere izan dira masterra egiten, Oñatiko Udalak ikasketak horiek egiteko ematen duen dirulaguntzari esker. Ordutik hona, zazpi oñatarrak eskuratu dute beka masterre-rako, eta datorren ikasturtean ere izango da aukera horretarako. Izan ere, 2013ko irailean hasiko den ikasturterako ere emango du beka Oñatiko Udalak. Beka hori 3.000 eurokoa izango da, aurrekoak bezala, eta ikasle oñatarraren matrikula ordaintzeko erabiliko da.

Institutua ezagutzeko eta zalantzak argitzeko, bisita egingo dute hilaren 11n, 17:00etan, egoitzan bertan.

LARRAITZ UGARTE | BEKAREN ONURADUN OHIA

"Edozein herritar animatzen dut beka lortu eta masterra egitera"

Gipuzkoako Aldundiko bozeramailea Larraitz Ugartek 1999-2000n egin zuen masterra, Oñatiko Udalak emandako bekari esker.

Ze oroitzapen dituzu?

Izugarri gustatu zitzaidan irakasleen maila, munduko bazter guztietakoak ziren. Institutuko baliabide materialak ere oso onak zirela gogoan dut. Liburutegia oso konpletoa da, kontaktu asko egin daitezke... Gainerako ikasleekin partekatutako esperientzia ere zoragarria izan zen. Mundu oso bat zegoen 13 lagunek talde hartan; Oñatitik atera barik mundua ezagutzeko modua. Egun, harreman handia dut batzuekin.

Lagundu dizu ikasturte



GOIENA

hark?

Soziologia juridikoan dauden eztabaida gaurkotuenak bizitzeko aukera ematen du, eta hori asko da. Bestalde, masterreko eskola guztiak ingelesez ziren, eta horrek nabarmen hobetu zuen nire ingeles

maila.

Zergatik animatuko zenuke oñatarr bat beka hori eskuratzera?

Herritar guztiei gomendatze diet masterra egitea Lege Soziologia Institutuan. Nire kasuan, Quebecera joan nintzen tesinarako ikerketa egitera, eta hori ere oso aberasgarria izan zen. Masterra oso erabilgarria egin zitzaidan ikerketaren munduan jarraitu nituen lauzpabost urteetan.

Igeriketa ikastarorik ez da egongo bihartik domekara Zubikoan

Bihartik domekara bitartean, Zubikoa kiroldegian ez da igeriketa ikastarorik egongo, ezta bestelako ur ekintzarik ere. Horrez gain, ordutegi berezia izango du Zubikoak datozen lau egunetan. Horrela, 6an, 8an eta 9an, jaiegunetako ordutegia izango du (09:00etatik 13:30ra) eta 7an, egubakoitza, ohiko ordutegia.

Unibertsitatea eta parroikia ikusteko bisita gidatuak asteburuan

Turismo Bulegoak antolatuta, bisita gidatu bereziak egingo dituzte asteburu honetan. Egunean, zapatuan eta domekan, Unibertsitatea eta Mikel Goiaingeruaren parroikia bisitatuko dituzte, eta egubakoitzean, parroikia bakarrik. Edozein zalantza argitzeko edo irteeretan izena emateko, hau da Turismo Bulegoko zenbakia: 943 78 34 53.

'Tipi-tapa' ibilbide gidatuetan izena emateko azken eguna

Gaur, abenduak 5, da azken eguna osasun zentroak Udaleko Kirol Zerbitzuekin batera antolatu dituen *Tipi-tapa* ibilbide gidatuetan izena emateko. Distantzia askotariko ibilbideak dira, adineko pertsona sedentarioendako. Abenduaren 10an, 12an eta 14an egingo dituzte, herriko plaza-tik abiatuta.

Goiena i-rent
Ibilgailuen alokairua



• IBILGAILUA ERAMATEN DIZUGU:

- LANTOKIRA
- ETXEKO ATARIRA
- AIREPORTURA...

• ETA ABENDUKO ZUBIA BEZ BARIK DISFRUTA EZAZU!!!

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK:

943 71 66 52 / 619 44 71 75

info.goienarent@i-rent.es
www.goienarent.com





Iñigo Louvelli, udalbatzako gainerako kideekin, astelehenean. | M.A.

Iñigo Louvelli da Euskara eta Hezkuntza zinegotzia

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETAK

Astelehenean egindako ezohiko osoko bilkuran zinegotzi kargua hartu zuen Bilduko Iñigo Louvellik. Jose Luis Martinek irailean utzitako hutsunea bete du izatez hondarribiarra izan arren azken urteotan Aretxabaletan bizi den Louvellik, eta Euskara eta Hezkuntza batzordeen buru izango da. Hainbat erakundetan Udalaren ordezkaria izango da; euskaltegian eta Goienan, esaterako.

Etxegabetzeak gelditzea

Udabaltzak, gainera, etxegabetzeen gaineko mozioa onartu zuen. Etxegabetze guztiak bertan behe-
ra uzteko eta herritarren esku-
bideen defentsa bermatzeko lege-

dia aldatzeko exijitu zuten horren bitartez; eta, beste batzuen artean, onartu: Udalak kreditu entitateekin duen harremana berrikustea; herritarrak informatzea eta arriskuan daudenei laguntzeko baliabideak jartzea; etxegabetze prozesurik ez bultzatzea; etxegabetzeen aurka lanean ari diren gizarte eragileekin elkarlanean jardutea; eta subiranotasun politikoa exijitzea. *Etxegabetzerik ez* leloarekin elkarretaratzea egitea ere onartu zuten.

Bestalde, Palestinaren aldeko adierazpen instituzionala ere onartu zuten, eta eskatu Palestinar herriaren aurka burutzen den okupazio ilegalarekin eta zapalketarekin bukatzeko.

Pentsioen gainean jardun zuen EAJko Maite Peñak Basotxoko erretiratuekin

M.A. | ARETXABALETAK

EAJko GBBko gizarte gaietako arduradun Maite Peña izan zen astelehenean Basotxon. 80 bat lagun elkartu ziren eta kotizaziopeko pentsioen, kotizazio gabekoen eta haien osagarrien gainean jardun zuen. Peñak, Errenteriako zinegotzi eta Batzar Nagusietako Gizarte politiketako bozeramaile gisa izandako esperientzia lagun, erantzun zituen erretiratuen galderak.

Gizarte laguntzen eta Dependentsiaren Legearen gainean ere jardun zuen eta hiru mota aipatu: diru sarrerak bermatzeko errenta (Jaurlearitza); diru sarrerak bermatzeko laguntza (Diputazioa); eta etxebizitza ordaintzeko laguntza osagarria

(Jaurlearitza). Peñak esan zuenez, azken bi urteotan laguntza horien baldintzak gogortu egin ditu Jaurlearitzak.

Adineko gero eta gehiago

Dependentsiaren Legeak interes handia sortu zuen. Peñaren esanetan, 65 urtetik gorako 127.000 lagun ditugu Gipuzkoan eta 2020rako 155.000 izango dira: "Guztiok laguntzak beharko ditugu denbora luzeagoz". Eta gaineratu zuen: "Ezin da krisiaren izenean gizarte laguntzarik murriztu". Bukatzeko, zera argitu zien: "Beharrezkoa da ditugun gizarte azpiegitura eta laguntzei eusteko produkzio ekonomikoak gora egitea. Eta horretarako politikak egitea ezinbestekoa".

Telefonoaren irabazle Jokin Uribetxebarria

24:00etan zu2peien esaldiarekin irabazi du Jokin Uribetxebarriak maitasunezko SMS lehiaketa. Bigarrena izan da Beñat Abasolo *Zenbat musika genero, zenbat kantu lelo, nik zugan pentsatuz abesten dut egunero* esaldiarekin.



GAZTELEKUA

Bartzelonan emango du kontzertua abesbatzak, bihar

Aretxabaleta Abesbatza Bartzelonara doa aste bukaeran, hango Orfeo Laudate abesbatzak gurera egindako bisita itzultzera. Bihar, eguena, eskainiko du kontzertua Sant Eugeni I Papa elizan.

Euskal kantuak, Gabon kantuak –*Ator mutil, Oi Bet-lehen...*– eta Kataluniako kantuak eskainiko dituzte, besteak beste, eta organoaren laguntza ere izango dute batzuetan. Bartzelona ezagutzeko aprobetxatuko dute abesbatzako kideek.

'Lo imposible' filma emango dute aste bukaeran Arkupen

Lo imposible film arrakastatsua emango dute Arkupen aste bukaera osoan. Bi saio izango dira, gainera, egun bakoitzean. Hona hitzorduak: abenduaren 6an, 7an, 8an eta 9an, 19:30ean eta 22:00etan; eta 10ean, astelehena, 16:00etan eta 19:30ean.

Umeek, oster, *Saxana y el libro mágico* abenturazko filma izango dute zapatuan eta domekan (18:00).

Eta zineklubean, hilaren 13an, *Barrura begiratzeko leihoak* emango dute (19:30).

JOSTAILU BILKETA SOLIDARIOA

Olentzerok zakua
zimurturik dakar
ez baitu ezer jaso
bideetan zehar,
guri laguntza eske
dator bidenabar
eta ez al diogu
zerbait eman behar?

Ikazkinari zaio
nekea nabari
begirune apur bat
zor diogu hari,
eska diezaiogun
atariz atari
barruan daramagun
esku zabalari.

Neska-mutilok jarri
gara akorduan
opari zaharrak bilduz
etxe inguruan.
Zuretzat, Olentzero,
eraman orduan:
guk ez ditugu behar,
banatu munduan!

**ABENDUAREN 15ean,
Bergarako San Martin plazan
(goizez)**

**ARANZADI** *ikastola*
Kalitatezko Euskal Heziketa



Udal Artxiboa herritarrei gerturatzeko araudi berria

Hara jotzeko prozedura arautu barik zegoen, eta "behar" hori ikusi du Udalak

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Udal Artxiboko fondo eta dokumentuetara jotzeko araudia behin-behineko onartu zen azaroko osoko bilkuran. Eskoriatzarrek, udal funtzionarioek, zinegotziek eta ikerlariak artxiboan dagoen dokumentaziora jotzea du helburu, pertsonen intimitatea babestuz eta kontserbazioa bermatuz; araudi berriak horretarako prozedura zehazten du.

Edurne Iturbe udal idazkariak azaldu du Udal Artxibora jotzeko

araudirik ez zegoela, eta "behar" hori ikusi zela. Horrekin batera, jakinarazi du ez dela aldaketa handirik egongo, eta orain arte moduan funtzionatuko duela artxiboak; hori bai, eskaria egin beharko dute erabiltzaileek.

Araudiak bi motatako dokumentuak aurreikusten ditu: bate-tik, eskuragarritasun librekoak daude; hain justu, tramitazioan Administrazio Zuzenbidearen mende dauden dokumentuak, amaitutako prozesuei buruzkoak

badira, eta Estatuaren segurtasun edo defentsari, delituen argiketa edo pertsonen intimitateari ukitzen ez badiote. Dena dela, pertsonen intimitateari eragiten dieten datuak badira ere, dokumentuaren datatik 50 urteko antzinatasuna dutenak, edo titularra hil zenetik 25 urte igaroak dituztenak ere arlo horren barruan sartzen dira.

Bestalde, eskuragarritasun mugatukoak daude; Administrazio Zuzenbidearen mende ez dau-

denak, hala nola lan bileretako aktak edo alkatearen korrespondentzia; Estatuaren segurtasun eta defentsari, delituen argiketari edo pertsonen intimitateari eragiten dioten datuak dauzkatenak, esaterako, salaketa espedienteak, udaltzaingoaren txostenak, gizarte-zerbitzuetako txostenak edo udalerriko biztanleen errolda, beste askoren artean. Hirugarrenik, pertsonen intimitateari buruzko datuak ez dituzten izaera izendunekoak daude, hala nola obra baimenak eta jarduera irekitzeko espedienteak.

Erregistro orokorrean

Esan bezala, dokumentuak kontsultatu nahi dituztenek udaltxeko erregistro orokorrean eskabidea aurkeztu beharko dute, eta horretan, besteak beste, kontsultatu nahi den dokumentua edo behar den informazioa zehaztu

beharko dute. Hain justu, esku-ratu gura den dokumentuaren deskribapenaz gain, hala badagokio, alegatutako interes legitimoa eta interes legitimoa justifikatzeko erantsitako dokumentuak aurkeztu beharko dituzte. Dena dela, talde bakoitzak bere prozedura du; hain justu, udal funtzionarioek eta zinegotziek, herritarrek eta ikerlariak.

Jendaurrean

Azaroaren 26an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ostean, jendaurrean jarri dute interesatuek aztertu eta bidezko iritzitako alegazioak aurkez ditzaten. Urtarri-laren 4ra arte egongo da horretarako aukera, udal harrera zerbitzuan, sarrera erregistroan, honako ordutegian: astelehenetik egubakoitzera, 10:00etatik 13:30era, eta eguenetan, 15:00etatik 17:00etara.

Gabonetako sukaldaritzaren gaineko ikastaroa antolatu dute

M.B. | ESKORIATZA

Amuskak eta Olazarrek antolatuta, bi ikastaro berri egongo dira abenduan. Batetik, Gabonetako sukaldaritzarena dago; hilaren 17an, 18an eta 19an egingo dira saioak, 18:00etatik 20:00etara bitartean, erretiratuen etxeko sukaldean. Emakume edo erretiratuen elkarteko bazkideek 20 euro ordaindu beharko dituzte eta gainerakoek, oster, 25 euro.

Interesatuek abenduaren 14a baino lehen eman behar dute izena, esandako diru kopurua honako kontu korronte zenbakian sartuta: 3035 0044 85

0441021091. Izen-abizenekin batera sukaldaritza ikastarorako dela aipatu beharko da.

Formazio ikastaroa

Bigarrenik, formazio ikastaroa ere antolatu dute bi elkarteek. Elkarlanean lan egitearen abantailaz jardungo dute horretan, eta, horren harira, parte-hartzerako hainbat erreminta eskainiko dituzte. Egun bateko saioa izango da; hain justu, abenduaren 14an, kultura etxean. Lau orduko iraupena izango du, 16:00etatik 20:00etara. Edozeini dago zuzenduta debaldeen ikastaroa.

Eraikuntzarako txartel profesionala lortzeko ikastarorako izen-ematea zabalik

M.B. | ESKORIATZA

Abenduaren 17an eta 18an, eraikuntzarako txartel profesionala (ETP) ateratzeko ikastaroa dago, eta zabalik dago horretarako izen-ematea. Hilaren 12ra arte dago epea, udaletxeko Gizarte Zerbitzuetan, 08:30etik 13:30era. Izen-ematearekin batera NAREN kopia eta argazkia eroan behar-

ko dira, eta matrikula ordaindu. Eskoriatzarrendako 20 euro izango da eta kanpokoendako, 30. Gehienez, 15 lagunek parte hartu ahal izango dute eta eskoriatzarrek izango dute lehentasuna.

Saioak hilaren 17an eta 18an izango dira, 09:00etatik 13:00etara, kultura etxean.

Gertu dute euskararen erabilera sustatzen duen 'Berbalaguna' programa

Astelehenean plazan jarritako postuan 15 lagunek eman zuten izena

M.B. | ESKORIATZA

Euskararen Egunaren harira, *Berbalaguna* programan izena emateko aukera izan zen joan den astelehenean Eskoriatzako herriko plazan. 15 lagunek inguruk agertu zuten horretan parte hartzeko borondatea; gehienak joan den urtean egondakoak dira, eta errepikatzeke asmoa dute, bakarren bat berria bada ere. Izena ematearekin batera bakoitzak ondoen datorkion ordutegia ere aipatu zuen.

Orain, taldeak osatzen hasiko dira. Euskara udal teknikari Mari Carmen Arrietak nabarmendu du askotariko jendeak eman duela izena, eta partaide bakoitzaren beharretara egokitutako taldeak antolatu behar dituela. Horren harira, aurreratu digu eguen iluntzean pintxo-poteoan dabilen taldea irtengo dela aurrean ere.

Ikastetxeak eta euskaltegia

Dena dela, taldeak osatu aurretik, herriko ikastetxeekin eta udal euskaltegiarekin harremanetan jarriko dira Euskara Zerbitzukoak, euskaldun berri gehiago erakartzeko. Horrekin batera, gogorazi digu *Berbalaguna* egitasmoan



Joan den urteko guraso taldea. | MIRIAN BITERI

parte hartzeko interesa dutenek hiru bide dituztela izena emateko: kultura etxera joanda, 943 71 46 88 telefono zenbakira deituta edo euskara@eskoriatza.net posta elektronikora idatzita.

Hirugarrenez jarriko dute martxan *Berbalaguna* izeneko

egitasmoa Eskoriatzan. Euskara ikasten ari direnak edo berba egiteko aukerarik ez dutenak euskaldunekin elkartzea du helburu, euskaldun berriek euskaraz aritzeko aukera izan dezaten. Joan den urtean hiru talde sortu ziren egitasmo horren bueltan.



OHARRAK

JOSTAILUEN ERAKUSKETA

Gaur arte dago euskarazko jostailuen erakusketa bisitatzeko aukera, kultura etxean, 17:00etatik 19:30era. Hainbat argitaletxek merkaturatutako produktuak ikusi eta probatu ahal dira han; gainera, gaur, mahai-jolasen txapelketa ere egongo da.

GAZTEAK, DURANGORA

Irteera dute asteburuan gaztelekuan; zapatuan Durangoko Azo-

kara joango dira herriko gazteak; domekan, oster, zinema izango dute.

HITZALDIA IBARRAUNDIN

Izaskun Markinezek, Debagoieneko Ospitaleko zirujauak, *Koloneko kirurgia eta prebentzioa* berbaldia eskainiko du martitzen, abenduak 11, Ibarraundi museoan. Koloneko kirurgiaren gaia landuko du, eta, horri lotuta, koloneko minbizia goiz detek-

tatzeko programaren eta duen garrantziaren gainean egingo du berba Markinezek. 19:00etan hasiko da hitzaldia.

BEGIRALEAK BEHAR DIRA

Astelehenean, hilak 10, amaitzen da aurtengo Gabonetako parke-rako begiralea izateko deialdia. Curriculumak herriko kultura etxean edo gazteria@eskoriatza.net posta elektronikoa aurkeztu beharko dira.



laz, Xinkona dendan egindako gaztetxoen lanak. | GOIENA

Abenduko kultura egitarauak Gabon giroa eta usaina dakar

M.A. | ANTZUOLA
Xinkonan, 4-12 urteko umeeek egindako eskulanak ikusteko aukera dago. Abenduaren 15ean eta 16an, Olanan, 18:30etik 20:30era bitartean. Bertan, birziklatutako materialaz egindako lanak daude; baina baita gantxillozkoak ere. "Gantxilloa egiten ikasteak eta josten ikasteak badu meritua. Guztira, 70 haur ditut ikastaroan. Eta mutiak ere asko dira!", azaldu digu Alaitz Jauregik. Aste Santurako ikastarorako epea abenduaren 10ean irekiko da.

Ipuina, antzerkia eta musika
Musika eskolaren Gabonetako kontzertua abenduaren 17an

egingo da. 19:00etan, Torresoroan. Abenduaren 22an, aldiz, Domingo Chincillak helduentzako ipuin kontaketa saioa egingo du Torresoroan, 22:00etan. Eta 28an, Maite Frankok Gabonetako ipuinak kontatuko dizkie txikitxoei, 17:30ean hasita. Barre egiteko aukera aparta ere izango dute *Euskarazetamol* antzezlanak ikustera gerturatzen direnek hilaren 29an, Torresoroan, 22:00etan.

Olentzero eta Mari Domingi
Ohi bezala, hilaren 24an, Olentzerok eta Mari Domingik jaitiera egingo dute San Josetik. Eta urtarrilaren 3an, jolas parkea, eskolako patioan.

Igartzaren erretratu sakonak eta bakunak Donostian ikusgai

M.A. | ANTZUOLA
Nagore Igartza antzuolarraren argazki-lanen erakusketa dago Donostiako Lugaritz aretoan ikusgai. Azaroaren 22an zabaldu zuten. *Profunditats*, *Ezlekuak* eta *Argiak* serietatik aukeratutako argazkien bildumatxoak osatzen du erakusketa. *Barneko lurraldea* bilduma lanaren ostean, arrakastaz eta ikusminez dator Igartzaren bilduma berri hau. Lan guztiak daude harremanetan. Paisaian, begi bistan dugunarekin eta ikusten ez denarekin jolas egiten du. Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00e-

tatik 20:30era bitartean dago zabalik erakusketa Donostiako Lugaritz aretoan.

Eskarmentudun artista da
Arte aplikatueta graduatua da Nagore Igartza. Eta diseinu grafikoan espezialitatea egin du. Argazkigintza ikasketak Bartzelonan egin zituen. Argazki proiektu pertsonalak sortzeaz gain, komunikazio grafikoan hainbat lan egiten ditu enpresa eta erakunde ezberdinentzat. Zenbait erakusketatan parte hartu du eta hainbat sari eta beka jaso ditu. Informazio guztia hemen: www.nagoreigarza.com.

Bizikletak garbitzeko guneak harrera ezin hobeak dauka

Hasiera batean, behinik behin, guztiz zabalik egongo da, herritarren eskura

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA
Sagasti auzoko bizikleta garbitzeko gunea 20-25 lagun arteen egin dute; guztiek bizikletan ibiltzeko zaletasuna dute. "Harrera ezin hobeak eduki du; erabiltzaile guztiok zain geunden noiz irekiko", azaldu digu Migel Mari Jauregi antzuolarrak. Auzolanean hark jardun du beste batzuekin batera, eta pozik azaldu da: "Herri txikietan beti egon da auzolana, eta bultzatu egin behar da; positiboa da herriarendako".



Sagasti auzoko bizikleta garbitzeko gunean, erabiltzaileak, gustura. | MAIDER ARREGI

Arautuan ostean zabalik
"Herritarrek eskatutako ekimena izan da. Auzolanean egiteko prest ote zeuden galdetu genien Udaketik, eta euren egin dute dena. Udalak materiala jarri du", azaldu digu Aritz Saidik, Kirol zinegotziak. Behin arautu ostean, zabalik dago, edonork erabiltzeko prest. "Libre utzi gura dugu, beti zabalik; ea errespetatzen den eta guztien artean zaintzen dugun". Bestalde, esan beharra dago hilero bizikleta irteera egin nahi dutela, eta jendea animatzeko dei egin dute Antzuolako bizikletazaleek. "Nahi duena etor daiteke, helburua disfrutatzea da; data aurreago zehaztuko dugu".



MIGEL MARI JAUREGI
ERABILTZAILEA

"Auzolanean eginda, gero emaitza ikustea eta gozatzea oso aberasgarria da. Garai honetarako, gainera, aproposa; izan ere, bizikleta zikin duzula ez daukazu gasolindegira batera joan beharrik".



ARITZ SAIDI
KIROL ZINEGOTZIA

"Bizikletak eta motorrak garbitzeko soilik izango da garbigunea. Norberak arduratu beharko du uraren pasoa ixteaz eta, xaboa erabili gura izanez gero, biodegradagarria erabiltzeaz".



JOSETXO ARANTZABAL

Errepidea itxita, lur-jausi arriskuagatik

Zapatu eguerdian, 12:20an, erori zen harria San Josepe auzoko errepidera; herri barrura sartzeko errepidera, alegia. Orain, geologoek luraren egoera zein den ikertzen dihardute. Horregatik, Udalak adierazi digu, badaezpada, bidea itxita egongo dela lur-jausia gertatzeko arriskua guztiz baztertu arte.

OHARRAK

PILOTA
Egubakoitzean, Olalde vs Euskal Jolas, 20:00etan, frontoian.

ARROLA
2013rako mendiko federatu txartela Arrolaren bidez egiteko aukera hilaren 10ean Olanan duzue, 19:00etatik aurrera.

FUTBOLA
Elgoibar vs Antzuola, zapatuan, 16:30ean, Elgoibarren.

MUJIKA HARATEGIA

Berezitasunak:
Etxean hazitako zekorrak eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

GAILUR

taberna eta gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

PATXI CASTRO

Era guztietako aulkien konponketa
•
Tapizatu lanak
•
Zumezko eta kanaberazko artikuluen salmenta
•
Besaulki, mahai, saskiak e.a
943 78 71 65
639 01 69 69

Euskararen Egunean, komikia eta eskolako ikasleak protagonista

Atzo, Irrien Laguneko klubeko Marikalanbreren ipuin kontaketa saioa izan zuten

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Euskararen Eguna ez zen ohar-kabea pasatu Aramaion. Domekan Txirritolak *Beste gazta zati bat* dokumentala ekarri zuen kultur etxera. Baina aurten ere protagonista nagusiak San Martin eskolako ikasleak izan dira. Urtero gai bat aukeratzen dute; oraingoan, euskarazko komikia izan da protagonista, goizean zein arratsaldean. Ainara Aspiazu hernaniarra gonbidatu zuten San Martin eskolakoek, tailerraren gidari izan zedin.

Aspiazuk berak klasean bertan azaldu zigun zein zen ekimenaren helburu nagusia: "Helburua da haurrek komikiarekin goza dezatela, baina baita euskararekin ere".

Irudimenez jositako istorioak

Ikasleak oso gustura ikusi genituen, adi-adi lanean: "Oso ondo ari dira lanean. Sekulako gogoia



San Martin eskolako ikasle talde bat komikiak erakusten. | JOKIN BEREZIARTUA

jartzen diote eta, marraztea euren dako arina den ariketa denez, ikusten da pozik ari direla. Eta ez hori bakarrik: oso istorio politak asmatzen dituzte". Eguna nola antolatu zuten azaldu digu Aspiazuk: "Gaur [astelehena] eskola ordu guztietan komikia lantzen ari dira, modu ezberdinetara. Hau da, klase ordu bakoitzean komikiaren arlo ezberdin bat lantzen dute".

Atzo, Marikalanbre liburutegian

Eskolako ikasle guztiekin egon zen Aspiazu: "Ikasle talde bakoitzarekin komikiaren osagai nagusiak errepasatu ditugu: pertsonaien espresioak, biñetak, buntailu edo bokadilo motak... Gero, proposatu diegu komikia euskaraz egitea, Euskararen Eguna gai moduan hartuta. Ikasle bakoitzak komiki tira bat egiten du eta baita pertsonaia bat sortu ere".

Bestalde, atzo Irrien Lagunen klubeko Marikalanbreren ipuin kontaketa izan zen Udal Liburutegian. 09:30ean, 3 eta 7 urte arteko ikasleendako saioa egin zuen eta 11:30ean, berriz, 7 eta 12 urte artekoendako. Zientziaren gaineko sekretuen gainean aritu zen Marikalanbre; haurrek izugarri gozatu zuten.

Oihan Bideburu, Arabako txapelkun kadete mailan

Aramaioko pilota taldeak jakinarazi duenez, azaroaren 25ean Gasteizko Ogeta pilotalekuan jokatu ziren Arabako buruz buruko txapelketako finalak. Bada, albiste pozgarri batekin etorri ziren Gasteiztik; izan ere, Oihan Bideburu aramaiarra garai- le izan zen kadete mailan; txapelarekin eta dominarekin bueltatu zen. Zorionak!



Oihan Bideburu. | XABIER HERRARTE

Euskara ikastaroak aurrera doaz, hastapenekoa izan ezik

J.B. | ARAMAIO

Udaleko Euskara Zerbitzuak hiru euskara ikastaro antolatu zituen, iaz bezala: oinarritzko edo hastapen ikastaroa, alfabetatze-maila lortzeko eta mintzalagunena. Bada, lehena izan ezik –ez da jende nahikorik apuntatu–, gainerako biak aurrera doaz.

Bederatzi ikasle, hiru profil

Alfabetatze ikastaroari dagokionez, bederatzi ikasle daude Jon Azkoaga arrasatearraren azalpenen bidez euskara ikasten. AEK-ko irakaslearen arabera, maila ezberdinak ditu taldean: "Euskaldunak diren batzuk alfabetatzeko etorri dira eta

beste batzuk euskaraz ikastera datoz. Beste bat, adibidez, euskaldun berria da, ondo egiten du euskaraz, baina Aramaio-ko hizkera ez du ulertzen. Hiru profil horiek ditut nagusiki".

Asteazken lau ordu egiten dute, astelehenean bi ordu eta eguaztenean beste bi. Ekain amaierara arte iraungo dute eskolek; oraingoz, lau saio egin dituzte: "Oso gustura nabil eurekin", dio Azkoagak.

Bestalde, iaz sortu zen mintzalagun taldea ere hasi da zapaturo elkartzen: "Jarri gara martxan", diote. Euskaldun zaharrek euskaldun berrieekin egiten dute topo eta helburua sinplea da oso: euskaraz berba egitea.



AIZPEA AJURIAGERRA

Zarauzko kros mistoan ere, Aramaioko ordezkariak

Joan den domekan kros mistoa egin zuten Zarautzen. Proba arrakastatsua izan zen; izan ere, 700 bat bikotek eman zuten izena. 700 bikote horien artean, Aramaioko ordezkariak ere izan zen; herriko lau bikotek hartu zuten parte. Adierazi digutenez, ederto ibili ziren: "Senitartekoak ere bertan egon ginen, eta gero bazkaltzera joan ginen denok elkarrekin. Egun-pasa ederra egin genuen, kirola aitzakia hartuta. Ea datorren urterako bikote gehiago animatzen diren!".



Joan den astean osoko bilkuren aretoan eman zuten klasea. | JOKIN BEREZIARTUA

Sastiña beteta Txikonen saioa ikusteko

Azaroaren 30erako Orixol elkarteak Alex Txikon alpinista lemoztarra gonbidatu zuen Sastiñara, 2011ko neguan Gasherbrum I-era egindako espedizioa deskribatzen duen *Next time in Inshallah* dokumentalaren gainean berba egiteko. 80 bat lagunek bete egin zuten aretoa; bertaratu zirenek denetarikoz kezka galdetzeko aukera izan zuten.



GARAZI ERIZ

ELGETA

Herriko umeeek saskibaloia saioa izango dute hilean behin

L.Z. | ELGETA

Barikuan egin zuten ikasturteko lehenengo saskibaloia saio irekia gaztetxoendako, eta hogeit bat neska-mutikok hartu zuten parte; txikiena lehenengo mailakoa, eta nagusienak seigarren mailakoak. Azken horiei bereziki zuzenduak saiook denendako daude zabalik, azken helburua Elgetako gaztetxoaren artean saskibaloia praktikatu sustatzea baita.

Barikuko saioan eta jolasaren bitartez baloia kontrolatzeko, oreka mantentzeko eta talde lanean aritzeko ariketak ipini zituzten praktikan. Gazteak gustura ibili ziren, eta gehieni motz egin zitzairen ordubeteko saskibaloia saioa.



Neska-mutikoak saskibaloia saioan oreka ariketak egiten. | L.Z.

Bigarren ikasturtea

Aurreko ikasturtean abiarazi zuten ekimena Elgetako Udalak eta Bergara Kirol Elkarteak (BKE). Elkarlanerako hitzarmena sinatu, eta hilean behin gaztetxoei zuzendutako saskibaloia saio bat egin zuten.

Iaz moduan aurten ere BKEko kirol teknikari Alex Gardokik gidatu du ikasturteko lehenengo saioa, baina aurretarrantzean ardura hori Aitor Gorostiza elgetarrarena izango da. "Aurten beste hiru elgetar gazte sartu dira Bergarako saskibaloia taldean; bi mutil eta neska bat", adierazi du kiroltako zinegotzi Jose Mari Zubiaurrek. Elgetako hurrengo saioa urtarrilean egingo dute.



Astelehenean, eskolan, euskararen zuhaitza egiten. | L.Z.

Elgetako umeeek ere ospatu dute Euskararen Eguna

Euskararen zuhaitza osatu dute eskolan, eta euskarazko liburuak eta filma izan zituzten

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Euskararen Eguna, astelehenean, ez zen Elgetako Herri Eskolan oharkabean pasa. Goizeko lehen txirrina jo aurretik, eta egun seinatua zela adierazteko, musika izan zen nagusi eskolako sarreran. Eguerdian, berriz, behetxo solairuan elkartu ziren ikastetxeko ikasle eta irakasle guztiak.

Elkarrekin euskararen zuhaitza osatu zuten. Ekitaldiari hasiera emateko 5. eta 6. mailetakoei hiru bat bertso bota zituzten, eta jarraian, gelaz gela, zutabe batean marraztutako zuhaitzari hostoak ipintzen joan ziren. Hosto bakoitzak lelo bat aldarrikatzen du. Hemen irakur daitezkeenak: *Guk euskaraz; Euskarari bai; Zuk eta*



Liburuak plazan. | L.Z.



Euskarazko pelikula ludotekan. | L.Z.

nik euskaraz orain eta beti; Euskara maitatzen dugu; Elgetan euskaraz; Euskal Herrian euskaraz eginez mundua menperatuko dugu; Guk Elgetan euskaraz egiten dugu; eta 365 egunetan ere euskararen alde.

Liburuak eta zinema euskaraz

Arratsaldean ere egon zen ekitaldirik. Udak Liburutegitik euskarazko liburu sorta polita ateratu zuten kalera herritarrek, bereziki haurrek, ikusteko. Ludoteka, berriz, haur guztiendako zabaldu zuten, eta *Basalagunak* filma eman zuten euskaraz.

IX. PILOTA TXAPELKETA

Pilota txapelketa, azken txanpan

Aste bukaera luzea dugu aurretik, eta pilota txapelketan ez da jardunaldirik izango. Domekan hiru norgehiagoka jokatu dira, baina atzeratutako partiduak dira guztiak. Finalurrekoak hilaren 21ean jokatu dituzte eta finala, urtero legez, Urtezahar egunean, eguerdian.

AZKEN EMAITZAK	
Mikel Ormaetxea-Haritz Makarro / Iratitz Bolinaga-Koldo Erostarbe	13-22
Jose Mari Zubiaurre-Iñaki Ugarteburu / Asier Morales-Fernando Zenitagoia	22-16
Luis A. Alkorta-Gorka Bolinaga / Jabier Bolinaga-Iñaki Izagirre	22-11
Odei Zenitagoia-Andoni Elortza / Oxel Erostarbe-Gorka Arizmendiarieta	22-13
Sergio Bouzas-Jon Irazabal / Oxel Erostarbe-Gorka Arizmendiarieta	22-17
Igor Irazabal-Enrike Elkorro / Iker Irazabal-Jabier Larrañaga	22-07
Odei Zenitagoia-Andoni Elortza / Iban Retolaza-Diego Cantabrana	22-12

DOMEKAKO PARTIDUAK, 10:30EAN HASITA	
Jose Mari Zubiaurre-Iñaki Ugarteburu / Luis A. Alkorta-Gorka Bolinaga	
Oskar Askasibar-Haritz Gallastegi / Oskar Sarasua-Iñaki Olaortua	
Haritz Makarro-Mikel Ormaetxea / Oskar Sarasua-Iñaki Olaortua	

Oñatiko Ikusi Makusi taldearen ikuskizuna antzokian, 17:30ean

Xalbadorpe erretiratuaren elkarrekin gonbidatuta *¿Dónde está la pierna del alcalde?* delako antzezlan egingo dute gaur, eguaztena, Oñatiko Ikusi Makusi erretiratu taldeko kideek. Espaloia kafe antzokian egingo dute ikuskizuna, 17:30ean hasita. Sarrera doan izango da.

Datorren astean bingoa eta Alai abesbatza erretiratuendako

Astelehenean, abenduak 10, Gabonetako bingoa egingo dute erretiratuak Ozkarbi elkartean. 17:00etan hasiko da saioa. Abenduaren 12an, berriz, Bergarako Alai abesbatzak emanaldia egingo du antzokian, 17:00etan. Atsedendian, Gaizka Morales elgetarrak dantza saioa egingo du. Sarrera doan da.

'Gazta zati bat' filma kafe antzokian abenduaren 12an

Euskal gatazkaren gaia aurkeztu du Jon Maia bertsolariak zuzendutako lanak. Hilaren 12an, 21:00etan, eman dute Espaloia kafe antzokian. Dokumentalak giza faktoreari garrantzi berezia ematen dio. Sarrera 2,50 euro da. Batutako dirua ekoizleendako izango da.

LEINTZ GATZAGA

Javier Elkorobarrutiak jaso du Baserrisareak emandako oparia

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Irailen aurkeztutako Baserrisarearen webguneari (www.baserrisarea.com) berri ematen dabil azken asteotan hainbat herri eta auzotan, Deba Garaia Landa Garapenerako Elkartea eta Debagoieneko Baserri Sarea. Hala, Gatzagan ere izan ziren San Milixan egunean, eta postua jarri

zuten ferian webgunea aurkeztu eta argibideak emateko asmoarekin. Zozketarako txartelak eman zizkieten betetzeko orduan, gerturatu ziren guztiei, eta dagoneko egin dute zozketa hori. Javier Elkorobarrutia bergarra izan da saritua, eta Debagoieneko produktuekin osatutako saski dotorea jaso du.



Javier Elkorobarrutia. | DEBA GARAIA

Garajeen zozketa egingo dute hilaren 11n, martitzenean

Pilotaleku azpiko udal garajeen plazak banatzeko zozketa egingo dute abenduaren 11n, martitzenean, udaletxeko osoko bilkuren aretoan (18:00).

Onartuen eta baztertuen zerrendak ikusgai daude udaletxean, eta gaur, abenduak 5, bukatuko da epea erreklamazioak aurkezteko.

Aperribay, s.l.

Marmoldegi
eta granitoak

Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21
20690 ELGETA

SASKIBALOIA

Euskal erkidegoko saskibaloitxapelketa Iturripen, egunotan

Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako gazte mailako jokalarionenak batuko dira Iturripen

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Saskibaloitxapelketa hitzordu polita izango dugu asteburu luze honetan Iturripen. Ibarreko zale guztiak gonbidatuta daude Ointxe! klubak federazioekin elkarlanean antolatutako txapelketara. Torneo bihar, eguna, hasiko dute, Iturripen, eta partiduguztiak goizetan jokatu dituzte.

Hala, txapelketan gazte mailako gizonezko eta emakumezko jokalarionenak batuko dira, eta tartean egongo da ibarreko ordezkariarik, MUko jokalaria Mikel Atxa, alegia.

Txosna jarriko dute

Jokalariek kantxan jarriko duten saskibaloitxapelketa giroaz batera, klubeko ordezkariak arduratuko dira kantxatik kanporakoa girotzeaz, izan ere, saskibaloia ikusteaz batera hamaiketako egin ahalko da Iturripen. Musikaz girotuta Ointxe!-koen asmoa da txosna jartzea: "Modu horretan klubari laguntzeko diru-sarreratzeko bat izaten ahaleginduko gara", adierazi du Jon Basurko presidentek: "Torneo hau antolatu arren Gabonetakoa berdin-berdin egingo dugu", gaineratu du Arrasatekoak.

ESANAK

"Iturripen txosna jarriko dugu klubean diru-sarreratzeko bat lortzeko asmoarekin"

JON BASURKO | PRESIDENTEA

TXAPELKETAREN EGITARAUUA:

EGUENA, ABENDUAK 6:

10:00 Araba-Bizkaia (Emakumezkoak).

12:00 Araba-Bizkaia (Gizonezkoak).

ZAPATUA, ABENDUAK 8

10:00 Bizkaia-Gipuzkoa (Gizonezkoak).

12:00 Bizkaia-Gipuzkoa (Emakumezkoak).

DOMEGA, ABENDUAK 9

10:00 Gipuzkoa-Araba (Emakumezkoak).

12:00 Gipuzkoa-Araba (Gizonezkoak).



Gazte mailako Ointxe!-ko jokalariek, Gabonetako torneoan. | GOIENA



Michael Robinson aurkezle ezaguna. | MADFOOTBALLER.COM

TXIRRINDULARITZA

Markel Irizar protagonista 'Informe Robinson' saioan

Aste barruan egon dira kameralariak Arrasaten, Oñatikoaren egunerokoa grabatzen

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Radioshack barruan talde izatera indartzeko asmotan Markel Irizarrek hainbat egun egin ditu Luxenburgon, taldekideez kontzentratuta. Eta handik bueltan, Oñatikoak Canal+ telebista kateko lantaldearen bisi-ta izan du.

Hala, Michael Robinson aurkezle ezagunak aurkeztu duen *Informe Robinson* saioan Oñatikoak ikusi ahal izango dugu datorren denboraldian, baina dakigunez, kameralariak eta bestelako lankideak bai, baina aurkezle izarra ez da Debagoienan ibili. Hala, Canal+ telebista kateko ordezkariak domekan iritsi ziren Arrasatera, eta lauzpabost egun egingo dituzte Arrasaten eta inguruetan, Irizarren egunerokoa jarraitzeko asmoz.

Ziklismoa, hainbatetan

Ez da lehenengo aldia Michael Robinson ziklismoaz interesatzen dena, ezta konkretuki txirrindulari batena ere. Ez dira oso zaharrak Movistar taldekoekin Giroan egindako erreportajea edota David Millar



Markel Irizar. | X.U.

ziklistarekin grabatu zuena, hark dopinaz zipriztinduta ibili zen urteez berba egiteko idatzi zuen liburua ostean *Racing Through the Dark*.

Oraingoan, berriz, Liverpool eta Osasunako jokalarion ohiak euskal ziklista bat aukeratu du elkarriketatzeko, ziklismoan –eta bizitzan– une gazi eta gozoak bizi izan dituenak. Irizarrek badu zer kontatu, edo hori pentsatu du Michael Robinsonek; egunotako lanaren emaitza telebistaz jarraitu beharko dugu.

SASKIBALOIA

Natra Oñatik derbi gipuzkoarra jokatu du zapatuan Zubikoan

Abenduko zubian EBAn diharduen saskibaloitxapelketa ez du atsedetik hartuko, zapatuan 18:00etan jokatu du eta Urretxuko Aluminios Alberdi taldearen kontra.

Eneko Blancoren taldeak ligako bosgarren garaipena eskuratu zuen joan den astean Santanderren, eta duela bi aste Burgosko taldearen kontra etxean jasotako porrotari buelta eman nahiko diote, are gehiago, etxeko zaleen aurrean. Urretxuko taldea ez da ligako kontrario gogorrena, atzealdean dago sailkapenean, baina Oñatikoek ikasi dute erlaxatzeak zer dakarren.

ZIKLO-KROSA

Jon Rivero eta Zigor Urain, Gipuzkoako txapeldun

Domekan egin zuten Legazpiko ziklo-kros lasterketan Debagoieneko bi ordezkari eraman zituzten txapelok; Jon Rivero bergararrak jantzi zuen 23 urtez azpikoetakoa, eta, elitean, Zigor Urain arrasatearra izan zen onena. Julen Umerez oñatiarra, berriz, Gipuzkoako txapeldunordea izan zen.



LOKATZA

ATLETISMOA

Santamasetako krosak 35 urte beteko ditu abenduaren 16an

Koadrilen arteko lasterketa 12:30ean hasiko dute, sei kilometroko ibilbideaz

XABIER URTZELAI | ARRASATE
Arrasate Kanpanzar Atletiko taldeko ordezkariak gertu dute aurtengo Santamasetako lasterketa, Enrike Kabiketa memoria-l. Gainera, edizio berezia izango da, urteurren borobila ospatuko dutelako datorren zapatuan, abenduak 16. Santamasetako krosak 35 urte beteko ditu, eta ederra litzateke urteurren hori azken urteotako parte-hartze handienarekin ospatzea.

Iaz eguraldiak ez zuen lagundu
Azken urteotan Santamas kro-sean atletak eguraldi ederra izan dute. Hotz galanta, hori bai, baina eguraldi ona. Iazkoa salbuespena izan zen, atletak 6,4 kilometroko ibilbideari aurre egiteaz batera euria ere kontrat izan zutelako –Beñat Arnaiz (21.20) eta Ane Zabala (26.45) izan ziren azkarrenak. Eguraldi txarra zela ikusita antolatzaileek jende gutxi animatuko zela aurreikusi zuten,



Iazko Santamasetako krosa. | JOSETXO ARANTZABAL

eta, hala ere, 140 lagun izan ziren lasterketan. Hala, gainditzeko moduko zenbatekoa da hori.

Goizean, gaztetxoak
Arrasateko erdialdeko kaleetan gaztetxoek 11:00etan hasiko dituzte lasterketak. Hala, ordubeteko

tartean adin askotariko neska-mutikoendako probak egingo dituzte, distantzia ezberdinetan. Koadrilen arteko lasterketa, berriz, 12:30ean hasiko dute. Lasterketarako izen-ematea plazan egin ahal izango da, goizean bertan (5 euro).



ERRUGBIA | ARRASATE ERRUGBI TALDEA

Ibarreko gaztetxoei deialdia

Arrasate Errugbi Taldeak harrobia lantzen jarraitu nahi du, eta, horretarako, ibarreko 8 eta 13 urte arteko gaztetxo-en artean deialdia egin nahi izan dute, adierazteko errugbian jokatu nahi dutenek zabal-zabalik dituztela errugbi eskolako ateak. Entrenamenduak astearte eta ostegunetan egiten dituzte, 17:30ean, eta igandeetan, 10:30ean. Hala, nahiz eta denboraldia hasita dagoen –argazkia joan den astekoa da, Donostian–, klubeko arduradunek adierazi dute hori ez dela oztopo.

FUTBOLA

Ohorezko erregionaleko taldeek kanpoan dute hitzordua, atsedeen barik

Antzuolak ere kanpoan jokatu du, Elgoibarren defendatuko du lidergoa

X.U. | ARRASATE
Edo denek etxean, edo denek kanpoan. Halaxe aldrebestu da ohorezko erregional mailako egutegia, batez ere ibarreko taldeen jarraipena egiten dugunon-dako. Hala, oraingo asteburu

luzean ibarreko ordezkariak ez dute atsedeen hartuko.

Bergara laugarren dago
Joan den asteko jardunaldia etxe-ko guztiendako izan zen ona, baina lider dagoen Hernaniri 1-0

irabazita Bergarak (22) pauso galanta egin du aurrera. Asteburuan bosgarren dagoen Tolosa izango dute kontrario. Aretxabaleta (20), berriz, seigarren dago, eta Aurrerakoen kontra jokatu du. Arnasa, berriz, Mondrak (12) eta Aloña Mendik (14) hartu dute. Hala, asteburuan Arrasatekoak Beriora joango dira, eta Oñatikoak Irunera.

Antzuola, azkenaren zelaira
Erregional preferentean, berriz, ligan lider dagoen Antzuolak azken postuan dagoen Elgoibarren zelaian jokatu du. Dagoeneko, baina antzuolarrek badakite ezin dutela lasaitu.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

EMAKU. BIGARREN MAILA
Oñartzun-Mondra
Eguena, 12:00. Karla Lekuona.

GAZTEAK, EUSKAL LIGA
Amorebieta-Aretxabaleta
Domeka, 16:00. Amorebieta.

OHOREZKO ERREGIONALA
Aurrera-Aretxabaleta
Zehazteke.
Berio-Mondra
Zehazteke.
Real Union-Aloña Mendi
Zehazteke.
Tolosa-Bergara
Zehazteke

ERREGIONAL PREFERENTEA
Elgoibar-Antzuola
Zehazteke.

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELKETA
Eskoriatza-Abadiño
Zehazteke.

LEHENENGO MAILA
Aretxabaleta-Legorreta
Zehazteke.

ESKUBALOIA

GIPUZKOAKO BIG. TXAPELK.
Urnieta-Bergara
Zehazteke.

GAZTEAK
Bergara-Urola
Zehazteke.
Usurbil-Aloña Mendi
Zehazteke.

SASKIBALOIA

EBA
Natra Oñati-Aluminios Alberdi
Zapatua, 18:00. Zubikoa.

EUSKAL ERKIDEGOKO GAZTE MAILAKO TXAPELKETA

Eguena, abenduak 6
10:00 Araba-Bizkaia (gizonez.)
12:00 Araba-Bizkaia (emakum.)
Zapatua, abenduak 8
10:00 Bizkaia-Gipuzkoa (gizon)
12:00 Bizkaia-Gipuzkoa (Emakum.)
Domeka, abenduak 9
10:00 Gipuzkoa-Araba (Emakum)
12:00 Gipuzkoa-Araba (Gizonez).

PILOTA

ARRASATE

Arrasate 2-Gazteleku
Zapatua, 20:00. Uarkape.

ANTZUOLA

Olalde-Euskal Jolas
Zapatua, 20:00. Udal pilotak.



J. ARANTZABAL

GIPUZKOARREN DERBIA Zapatu arratsaldean (18:00, Zubikoa) gipuzkoarren arteko derbia izango dugu EBAn, Urretxuko taldearen kontra jokatu dute-eta oñatiarrek.

'Harmailatik' saio berezia astelehenean, TRT Racing taldeaz

X.U. | ARRASATE

Astelehenean Goienak jaso moduan Arrasate TRT Racing taldeko ordezkariak ez zuten zorte handirik izan joan den astean Alcañizko 500 kilometroko proban. Entrenamenduko saio ofizialean Iker Orobengoak pilotu lanetan zela kolpea izan zuen, atzetik Seat Leon batek gogor jo ostean.

Hala, bertan amaitu ziren Orobengoa anaien, Oñatiko Aitor Arnaizen eta ibarretik joandako lagun guztien esperantzak. Zorionez inork ez zuen minik hartu –irudiak ikustekoak dira– eta autoak kolpe ederra jaso zuen atzealdean. Esperientzia gazia izan da, duda barik,

baina Igor Orobengoak onartu digu asko ikasi dutela: "Datorren urtean errepikatu nahiko genuke, baina gauzak beste modu batera egin behar ditugula ere ikusi dugu; ikasgai ona izan da. Kolpearena edonori gerta ziezaiokeen, eta anaiari tokatu zaio. Baina egia da auto oso azkarrekin ibili garela zirkuituan, eta batzuk burugabe zebiltzala".

Asteburuan bizi izandakoak *Harmailatik* saioan kontatuko dituzte astelehenean (22:00), aurreratu moduan, zapore gaziaz amaitu badute ere ikasgai aparta izan delako: "Orain autoa konpondu behar dugu, baina arantza geratu zaigu".




Iker Orobengo, kolpea hartu baino minutu batzuk lehenago. | TRT RACING

...no 1130.
...zente Ana
Zuhaitz Inazir
a Bittor Lia Jos
a Begoña Herrit
Ane Larraitz Ant
...arne Aitzol Milen
Maite Leire Mikel F
Eneko Eba Ana Kor
e Fernando Angel
egio Vicente Mari
tso Nieves Migus
txo Itaso Ifak
tsu Isabel Batir
a Eba Sori-



KULTURA



DISKOA
HIRUGARREN AZALA
Egilea: Anger.
Argitaletxea: Bonberenea Ekintzak.

Arrasateko laukoteak 15 urte daramatza oholtza gainean eta bosgarren lana aurkezten du. Disko kontzeptuala, hitzen aldetik. Auto-ekoizpen bidez jardun ondoren, Bonberenea Ekintzekin banatu dute diskoa.




DISKOA
BIDE ZUZENETIK OKER
Egilea: Never Surrender.
Argitaletxea: Mauka Musikagintza.

Sorkuntzarako urtebete geldi egon ostean, arrasatearren hirugarren lan luzeak argia ikusi berri du. Euskaraz egindako hamar kantuz osatuta dago. Aurreko lanetan baino kantu motzagoak eta erritmo biziagoak jasotzen dira bertan.



DISKOA
BESTE ISTORIO BAT
Egilea: Arkada Social.
Argitaletxea: Mauka Musikagintza.

Mikel Arriaran taldekide berria lagun, 2012ko urtarrilean Higain estudioetan Haritz Harreguyk grabatu eta nahastuta eta Jonan Ordorikak masterizatuta. Zortzi kantu jasotzen ditu arrasatearren azken lanak.



DISKOA
GOSE IIIII
Egilea: Gose.
Argitaletxea: Kap Produksioak.

Arrosa koloreko diskoaren ostean laranja kolorekoa kaleratu dute arrasatearrek. Hamaika abesti jasotzen dira lan berrian. Spam-ek ekoitzi du bosgarren diskoa, techno musikaren esparruan ibilbide luzea duen bikoteak.




LIBURUA
TRIBUTU A CAISSA
Egilea: Martín Arriaran.
Argitaletxea: Hiria.

Alejandro hasi, Londrestik pasatu eta Donostian amaitzen den istorioa jasotzen du liburuak. Bergararren bigarren eleberria da *Tributo a Caissa*. Misterioz betetako eta xakean oinarritutako polizia-nobela.



DVD
BERTSOLARI
Egilea: Asier Altuna.
Argitaletxea: Txintxua.

Asier Altuna bergararra *Bertsolari* dokumentalaren zuzendari eta gidolaria da. Donostiako Zinemaldian aurkeztu zuen eta Durangoko Azokan DVDan aurkitu ahal izango da 90 minutuko lan hori.




LIBURUA
TEKNO + TURISMOA
Egilea: Maite Toledo Saralegi.
Argitaletxea: Beta Edizioak.

Industria, zientzia eta teknologia guneean egindako ikerketa baten emaitza da *Tekno + Turismoa* saiakera. Azaleratzen ari den turismo-aldaera baten berri eman, eta teknoturismoaren baliabideak ezagutarazi gura du lanarekin.



DISKOA
SURFUSION
Egilea: Los Galerna.
Argitaletxea: Mauka Musikagintza.

Surf doinu klasikoak alboratu gabe, beste estilo askoren nahasketa egin dute Los Galerna taldekoek euren bigarren lanean. Hamabi kantu jasotzen dira bertan eta CDan zein biniloan eskuratzeko aukera dago.



DISKOA
ADDICTOS SONITUS
Egilea: Los Cretinos.
Argitaletxea: Mauka Musikagintza

Talde arrasatearraren lan berria modu analogikoan grabatuta dago eta garage doinu zaharrak ekartzen ditu gogora. Gijongo Circo Perrotti estudioetan grabatu du taldeak, bere hamargarren urteurrena ospatzeko.



DISKOA
PUNTU BAKAR BATEAN ELKARTZEN DIREN ERTZAK
Egilea: Sharon Stoner.
Argitaletxea: Mauka Musikagintza.

Disko berriko kantu bakoitza pasarte, erritmo, sonoritate eta erregistro askoz egindako puzzlea da; eta, guztien artean, Oñatiko hirukotearen orain arteko disko melodiko eta aldi berean arrisku handienekoa osatu dute.



DISKOA
GALDAKAOKO OROIMEN HISTORIKOA
Egilea: Juan Carlos Irizar.
Argitaletxea: J.K. Irizar.

Galdakaako Udalaren ekimenez eta udalerriko oroimen historikoa berreskuratu guran, Juan Carlos Irizarrek gerra zibilari soinu-banda ipini eta, hain zuzen ere, gaiari buruzko hamabi titulu berri sortu ditu.

Ibarreko sortzaileak Durangon

- Bihartik abenduaren 9ra bitartean egongo da irekita azoka, 10:30etik 20:30era
- 3D teknologia erabilitako euskarazko lehenengo lanek tokia izango dute azokan | 24



DISKOA
OÑATI ETA OÑATIKO AUZOAK
Egilea: Juan Carlos Irizar.
Argitaletxea: J.K. Irizar.

Oñati eta herria osatzen duten 16 auzoei eskaini gura izan die musikari eta konposatzaile oñatiarrak azken diskoa. *Oñati eta Oñatiko auzoak* guztiz instrumentala da, 19 doinuz osatuta dago.



LIBURUA
JET LAG
Egilea: Maite Toledo Saralegi.
Argitaletxea: Beta Edizioak.

Bi liburu kaleratu ditu 2012an Toledok; horietariko bat da *Jet Lag* olerki liburu. Bizitzako ajeak eta pozak islatu gura izan ditu sortzaile antzuolarrak. "Hausturak eragiten dituelako bizitzak, erritmo berrietara egokiaraziz".



Azoka TVn lanean arituko den GOIENAKo taldea. | ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL



Nestor Basterretxearen lana. | GOIENA

Azoka TV

Aurten ere azokak irauten duen egunetan Azoka TV ikusgai egongo da. GOIENA arduratuko da eguenetik domekara bitarteko lanaz. Hala adierazi digu Oihane Agirre programazio zuzendariak: "Azokan bertan ipiniko den pantaila erraldoiari esker ikusi ahal izango da; iazkoa baino handiagoa da, gainera. Baina bestalde, egun horietan zehar, Goiena telebistak Azoka TV bakarrik emitituko du, eta euskarazko tokiko telebistetan ere eskainiko da."

Azokan gertatzen ari denaren berri emateaz gainera, liburuak eta diskoak aurkeztu dituztenak elkarrizketatuko dituzte, erreportajeak egin...

Guneak indartzen

Durangoko Azokako zuzendari Aiert Goenagak buruari buelta ugari emanda egitarau borobila prestatu dutela adierazi du, eta horietariko batzuk urteroko hitzordu izan daitezzen apustu egin dute, gainera: "Szenatokian, iaz oso ondo funtzionatu zuen antzerki maratokia egonkortu gura izan dugu eta hiru egunetara zabaldu dugu egitaraua". Irudien, berriz, iaz irekita, aurten indartu gura izan duten gunetarikoa bat da, eta gogor dator. Eta Plateruena lehenengo aldiz gune ofizial moduan agertu da.

Orokorrean, sekula baino programa zabalagoa antolatu dute 47. ediziorako: 253 mahai kokatuko dituzte, 400 nobedade pasa egongo dira eta 300 ekitalditik gora. "Testuinguru ekonomikoa kontuan izanda ez dira nolanahiko zifrak. Hogeia erakusmahai gutxiago etorri dira, baina 250tik gora etortzea adierazgarria da".

Ijito kultura eta Lertxundi

Urtero-urtero kultura gonbidatu bat egoten da Durangon, eta aurten, ijito kultura gerturatu gura izan dute antolatzaileek azokara. Kale Dor Kayiko elkartearekin elkarlanean programazio zabala antolatu dute, gainera: tailerrak, jokoak, ipuin kontaketak, kontzertuak... Bestalde, egubakoitzean 15:30ean Areto Nagusian egingo den *Emakume ijitoaren aldarria* izeneko berbaldia.

Omenaldia jasoko duen beste pertsona bat Benito Lertxundi artista izango da, Argizaiola Saria emango baitiote bihar. *Gauean Argi* ekitaldiaren barruan jasoko du saria. Merezitako saria, azokako zuzendariaren esanetan, "60ko hamarkadatik egindako lanagatik".

ESANAK

"Testuinguru ekonomikoa kontuan hartuta azokako zifrak ez dira nolanahikoak"

AIERT GOENAGA | AZOKAKO ZUZENDARIA

"Azokan bertan, euskarazko tokiko telebistetan eta Goienan jarraitu ahal izango da Azoka TV"

OIHANE AGIRRE | AZOKA TV

"Ilusioz hartu genuen 3D teknika baliatuz bideoklipa egiteko proposamena"

INES OSINAGA | GOSE

Euskal kulturaren hitzordu handia

- ▶ Durangoko Liburu eta Disko Azoka 47. ediziora iritsi da aurten, eta berritasun ugari dakartza
- ▶ 400 nobedade baino gehiago aurkitu ahal izango dira aurten Landako gunean lau egunetan zehar

ZURIÑE V.D.M. | ARRASATE

Bihar altxatuko ditu aingurak euskal kulturaren erakusleho erraldoi bilakatu den Durangoko Azoka deituriko itsasontziak. Beste urte batez sortzaileek euren lanak erakutsi ahal izango dituzte bertan. 47. ediziora iritsi da Durangoko Liburu eta Disko Azoka, eta zenbait berritasunekin dator oraingoan.

Teknika berriak azokan

Beirate bat eratu gura izan du Nestor Basterretxearen irudia sortzerakoan. Teknika modernoak baliatu ditu, gainera, bermeotarrak: telebistako pixelei argazkia aterata egin du horma-irudia.

Teknika berriak geroz eta modernitate handiagoko azokarentzat. Izan ere, Durangoko hitzordua garaietara egokitzen joaten da edizio bakoitzean. Esate baterako, oraindik paperezko liburuak nagusi diren azokan elektronikoek ere tokia izango dute, eta zazpi izenburu topatu ditugu, interesatuz gero.

Bestalde, euskaraz sortutako 3D lanak aurkeztuko dituzte Irudien gunean. Euskarazko lehenengo 3D filma egin dute



Iazko azoka. | GOIENA

Aiert Goenagak eta Jon Urrazak: *Morritson eta Gartzia*.

Bestalde, teknika hori erabiltu egin den lehenengo euskarazko bideoklipak ere Durangon ikusiko du argia: Gose talde arrasatearraren *Ezetz* kantua, hain zuzen. "Mikel Clementeren ideia izan zen. Aspalitik ezagutzen dugu elkar eta konfiantza dugu harengan, bidegintzan lan bikaina egin duela"

ko". Hala adierazi digu Gose taldeko ahots Ines Osinagak. "Proposamena egin zigunean ilusioz hartu genuen, bai teknika berria erabiltzeagatik, eta baita gura izan dugun abesti baten bideoklipa egin dugulako, orain artekoak enkarguak izan dira eta".

Egubakoitzean 12:00etatik aurrera aurkeztuko dituzte bi lanak.



Gose talde arrasatearra. | GOSE



Euskarazko 3D filma. | A.GOEENAGA

Durangon ere, 3D teknologia

Irudien izango da ikus-entzunezkoen gune nagusia. Euskarazko sortzaileen lanak aurkeztuko dira: film laburrak eta luzeak, dokumentalak... Baina, gainera, 3D teknologia baliatuta egindako euskarazko lanak aurkeztuko dituzte: Aiert Goenagaren eta Jon Urrazaren *Morritson eta Gartzia*, 3Dn eginiko euskarazko lehenengo filma; eta Gose taldearen *Ezetz* bideokliparen aurkezpenak egingo dituzte egubakoitzean, 12:00etan hasita.



Lehenengo entsegu orokorra egin zuten aurreko zapatuan, Oñatin. | JOSETXO ARANTZABAL

Akusazioak eta defentsak, tentsioa eta giro aparta toberaren entseguetan

- "Mitoetan oinarritutako akusazioak" direla eta, Oñati lasai dago
- Hurrengo entsegu orokorra abenduaren 15ean egingo dute, Oñatin

MAIALEN GONZALEZ | ARRASATE

Aurtengo tobera forma hartzen hasia da dagoeneko. Aurreko zapatuan egin zuten lehen entsegu orokorra. "Bagoaz forma hartzen, eta polita da bukaerako emaitza nondik nora joan daitekeen ikustea", adierazi du Egoitz Aizpuru parte-hartzaileak.

Oñati izango da aurtengo epaitua. Debagoieneko gainerako zortzi herriek epaituko dute. Bailara serio jarri da *txantxi-kuekin*, eta epaia irmoa da: "Oñati isolatuta bizi da, baina haiek dira isolamendu hori eragin dutenak, haiei komeni zaielako, alegia. Oñati ez da bailarako parte sentitzen, ez du ezer jakin nahi. Are gehiago, interesaren arabera jartzen da bailarekin harremanetan. Izan ere, Arrasatera Eroskin erosketak egitera soilik joaten dira edota Bergarara lanera eta lanetik etxera. Ez dira beste inorekin harremanetan jartzen. Azken finean, bailara berean egon arren, oña-

tiar batentzat berdina da Tolosa edo Bergara, Antzuola edo Aretxabaleta".

Oñatiko defentsa egingo du Egoitz Aizpuru eta, abokatu gisa, Oñatiren aurrakako epaiaren inguruan mintzatu da. "Erabateko konfiantza dugu guregan, herria defendatzeko argudioak soberan ditugu-eta. Izan ere, mitoetan oinarritutako akusazioak dira gehienak. Hots, urteetan zehar Oñatiri buruz 'esan izan direnak' dira, eta ez 'benetan direnak'. Horiek guztiak

mitoak dira, argudio sendorik gabeak, eta hori besterik ez dela frogatzeko arazorik ez dugu izango". Ziurtasun osoz mintzatu da Oñatiko abokatua. "Xehetasun gehiago, estreinaldi egunean".

Giro ona nagusi

Toberako parte-hartzaile moduan ere hitz batzuk izan ditu Aizpuru. Entseguetan giro oso ona dagoela azpimarratu du. "Ostean, gainera, aukera daukagu batera egoteko eta bata besteari adarra jotzeko: eskerrak

entseguak Oñatin diren! Herri-tik kanpo pare bat ordu baino gehiago eginez gero, oñatiarrak oxigeno falta sumatzen hasiko lirakeke-eta!".

Lehen entsegu orokorraren ostean, obra forma hartzen ari da. "Oraindik entseguak falta dira eta badago denbora norberaren lana eta karakterizazioa hobetzeko. Baina dagoeneko nabari da urduritasuna eta ilusioa. Badator aurtengo tobera, ez dago atzera bueltarik!".

Hurrengo entsegu orokorra abenduaren 15ean izango da. Horrez gain, astelehen eta eguaztenero Eteon elkartuko dira herri ezberdinetako eszena solteak entseatzeko.

Sarrerak salgai

Datorren egubakoitzean, hilaren 14an, jarriko dira salgai tobera ikuskizunerako sarrerak. Oñatin, Bergaran eta Arrasaten egongo dira salgai, baita barrabarra.eu webgunean ere.



Entseguaren une bat. | J.A.

ESANAK

"Oñatik argudio nahikoa izango du bere burua defenditzeko"

EGOITZ AIZPURU | OÑATIKO ABOKATUA

Pertsonaia zerrenda

Epailea
Mikel IrizarOñatiko abokatua
Egoitz AizpuruFiskala
Naroa ElortzaOñatiarra
Ana Mari LiziagaPregoiaria
Nagore ArriaranArrasateko lekukoa
Eneko AranaBegarako lekukoa
Aitor ErañaEskoriatzako lekukoa
Olatz PagaldaiFrai Migel
Gaizka PalacinRodrigo Mercado
Zuazola
Iñaki Olalde

SARI NAGUSIA

XBOX 360 + HALO REACH JOKOA
Bidali KLUBA XBOX
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.



Parte hartzeko

Telefonoz:
943 25 05 05
E-postaz:
kluba@goiena.com
WhatsApp bidez:
688 69 00 08
Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.



CD-A

Juan Carlos Irizarren,
"Oñati eta Oñatiko auzoak"
Bidali KLUBA CD
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.

LIBURUA

Jokin Zaitegi saria 2011
"Bizientzat eta hilentzat",
Tomas Tranströmerren obra,
Juan Mari Aguirreurretak itzulita.

Bidali KLUBA
LIBURUA
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira



goienakluba
Abantailaz betetako kluba!



goienakluba 2012

Tel.: 943 25 05 05
e-posta: kluba@goiena.com
goienakluba.com
Urteko kuota: 50 €.

Lehia gogorra izango da akordeoi lehiaketetan

Arrasate Hiria Nazioarteko 20. Akordeoi Lehiaketan, Gipuzkoako 33. Lehiaketan eta Gipuzkoako 25. Jaialdian 340 bat akordeoi jole elkartuko dira

MIRIAN BITERI | ARRASATE

Ez dute hutsik egingo, eta, urtero moduan, akordeoi doinuak izango dira nagusi egubakoitzetik domekara bitartean Arrasaten. Denera, 340 lagun inguruk parte hartuko Hauspoz, Euskal Herriko Akordeoi Elkartek, antolatutako lehiaketetan.

Oraingoan ere egitarau zabal gertatu dute: batetik, Arrasate Hiria Nazioarteko Akordeoi Lehiaketa egingo da, Amaia antzokian. Dagoeneko 20 urte pasa dira lehenengoa egin zenetik, eta nazioarteko urteroko hitzordu bilakatu da. Aurten, 11 lagunek hartuko dute parte: Stefanie Mirwald (Alemania); Ivan Tibor (Eslovakia); Maciej Frackiewicz, Maciej Zimka eta Tomasz Ostaszewski (Polonia); Yngvild Vivja Haaland Ruud eta Ida Lovli Hidle (Norvegia); Olga Morral (Katalunia); Hanzhi Wang (Txina); eta Andrew Shestakov eta Ruslan Bikkulov-ek (Errusia). Guztiek S. Mossenmarken *Wood spirit* kantua jo beharko dute. Epai-

lazko irabazle Purits gurean

Joan den urteko Arrasate Hiria Akordeoi Txapelketako irabazle losif Purits errusiarrek bi kontzertu eskainiko ditu egunotan: bihar, eguna, Aretxabaletako Arkupeko Zاراia aretoan izango da; eta etzi, egubakoitza, Arrasateko Kulturaten. Debalde dira 20:00etan hasiko diren emanaldiak. 6 urterekin hasi zen Purits akordeoia jotzen, eta, ordutik hona, bestalde, Bielorrusia, Suedia, Austria, Txina, Alemania, Frantzia eta Kanadan eskaini ditu kontzertuak. Aurten, gainera, Trophee Mondiale lehiaketa irabazi du Purits. Egunotan Debagoienean dugu.

mahaia ere ez da nolanahikoa izango: Alexey Artemyev errusiarra, Stefan Hussong alemaniarra, Geir Draugsvoll norvegiarra eta Gabriel Erkoreka eta Iñaki Alberdi euskaldunek osatuko dute.

Kanporaketa fasea egubakoitzean hasiko da, 09:00etan, eta domekan azken fasea jokatu dute, 11:00etan.

Gipuzkoako lehiaketan, 30

Bestalde, Gipuzkoako 33. Lehiaketa ere izango da. Euskal Herriko eta Espainiako askotariko adinetako 30 partaide arituko dira. Egubakoitzean, senior mailakoen kanporaketa fasea egingo dute, 17:00etan, Amaian. Domekan goiz hasiko dira maila berekoak, 08:00etan azken fasea dute-eta. Kulturaten, oster, junior mailakoak arituko dira, 08:30ean; eta haur mailakoak, 15:30ean.

Horretaz gainera, Gipuzkoako 25. Jaialdia ere egingo da zapatuan; 300 ikasle inguru arituko dira horretan. Musika esko-



losif Purits errusiarra erdian, saria jasotzen. | GOIENA

letan diharduten ikasleei dago zuzenduta, akordeoiarekin lehen pausoak eman ditzaten, lehia barik. Esan bezala, zapatuan izango dira kontzertuak, 10:00etan hasi eta 17:00ak bitartean, Amaia antzokian, Kulturaten eta Ariz-

mendi Ikastolan. Egun berean, 20:30ean, jaialdi horren sari banaketa egingo dute Amaian.

Gainerako lehiaketen azkeneko ekitaldia eta sari banaketa domekan izango da, 19:30ean, toki berean.

Gari Garitano eta Jon Pozo | Ilustratzaileak

"Zerbaki honetako marrazkiak hobeak dira bai kalitate aldetik eta baita teknikoki ere"

- 'Zapla!!' fantzinearen hirugarren zenbakia salgai
- Gari Garitano eta Jon Pozo dira egileetako bi

LAIDA BERISTAIN | ARRASATE

Noiz argitaratu duzue hirugarren zenbaki hau?

Lehenengo zenbakia uztarrilean kaleratu genuen eta bigarrena, Aste Santu inguruan. Lehenak bigarrenak baino harrera hobeak izan zuen. GOIENAN eta *Berria*-n erreportaje bana egin genuen fantzinea ezagutzera emateko, eta, lehenengo zenbakia nobedadea zenez, nahiko jende ekoiztu zuen. Bigarrena hotzago geratu zen.

Non jarri duzue salgai?

Bergarako eta Arrasateko taberna batzuetan dago fantzinea erosteko aukera. Zehazki, Arrasateko Iluntz, Ekaitz, Iturri eta Basati tabernetan eta Gaztetxean. Bergaran, berriz, Euxebio, Irrintzi, Ziripotz, Bule eta Popi's tabernetan. Bergaraz eta Arrasatez gain, Azpeitiko eta Tolosako pare bat taberna edo jate-txetan ere izango da salgai. Prezioa bi euro da.

Harrera ona izan al zuten aurreko bi zenbakiek?

Lehenengo zenbakia urtarrilean kaleratu genuen eta bigarrena, Aste Santu inguruan. Lehenak bigarrenak baino harrera hobeak izan zuen. GOIENAN eta *Berria*-n erreportaje bana egin genuen fantzinea ezagutzera emateko, eta, lehenengo zenbakia nobedadea zenez, nahiko jende ekoiztu zuen. Bigarrena hotzago geratu zen.

Ba al du gai zehatzik?

Ez, lehenengo zenbakia krisiaren gainekoa izan zen, baina hirugarren zenbaki honek ez du gai zehatzik, librea da. Bakoitzak nahi duen gaiaren inguruko lanak egin ditu. Mota guztietako gaiak lantzen dira: sexua, krisia, politika, kutsadura...



Gari Garitano eta Jon Pozo, *Zapla!!* fantzinea eskuan dutela. | LAIDA BERISTAIN

Zer aurki daiteke barruan?

Barietate handia du fantzine berri honek. Tira komikoak, ilustrazioak, bertsoak, karikaturak, 2013ko egutegia, istorio txikiak, txistek, artikulua... aurki daitezke bertan.

Aurreko zenbakiek baino barietate handiagoa du azkenengo zenbaki honek; egile barietatea ere handiagoa da. Horretaz gain, marrazkien kalitatea eta teknika ere hobeak da.

"Kolaboratzaile eta ezagunen laguntzaz balaratik kanpo ere zabalduko da"

Zerbaki berri hau Debagoienetik ateratzeko asmorik baduzue?

Gustura gaude maila honetan; fantzinea gure bailarako herrietan saltzen. Baina, egia esan, kanpoko kolaboratzaileen eta jende ezagunaren laguntzaz balaratik kanpoko beste herri batzuetan ere izango dugu fantzinea salgai. Adibidez, Bilboko kolaboratzaile berri batzuk ditugu eta haiek Bilbo inguruan zabalduko dute, baina konpromisorik gabe.

"Nahi duen edonork fantzinean parte hartzeko aukera ere badauka"

Zergatik fantzine bat?

Nork bere aldetik ezer egitea oso zaila denez gaur egun, guztion artean horrelako aldiakari bat egitea erabaki genuen. Guztion lanak batuta errazagoa izango zelakoan. Helburu komertzialik gabe hasi ginen, eta horrela jarraitzen dugu. Gustuko dugulako egiten dugun gauza bat da, eta egiten duguna besteei erakusteko egin genuen. Nahi duen edonork kolaborazioak egiteko aukera ere badu.

Zenbat zaudete taldean?

Izatez, 12-13 pertsonako lantaldea gara, baina gero, bilerak egiten ditugunean, askotan, 6-8 pertsona inguru batzen gara.

Gehienak lehenengo urtean hasi ginen berdinak gara, baina kolaboratzaile berri batzuk ere baditugu azken zenbaki honetan. Bilboko eta Tarragonako batzuk, besteak beste.

Nola antolatzen zarete fantzinea osatzeko?

Gehienbat, e-mailaren bitartez, eta, bestela, mugikorraren bitartez komunikatzen gara elkarrekin. Nork bere lana amaitzen duenean, e-mail bidez bidaltzen die besteei. Ez dago lan finkorik, bakoitzak ahal duena egiten du. Gero, bi maketatzaileraren artean guztion lanak batzen dituzte.

Lagarren zenbakiarekin hasteko asmorik baduzue?

Bai, lagarrenarekin hasteko asmoa dugu. Hirugarrenaren salmentekin kolpe handirik hartzen ez badugu, behintzat.

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aretxabaleta. 61 metro koadroko etxebizitza salgai. Bi logelaegongelazabala, sukaldea eta komuna. 2006an egina. Kiroldegitik gertu. Bizitzera sartzeko gertu. 115.000 euro. 629 42 01 10

Arrasate. Zarugalden. Bi logela eder, egongela zabala, sukaldea eta komuna. Horrez gain, terraza zabala, balkoia, trastelekua, igogailua eta berokuntza indibiduala. Sukaldea eta komuna guztiz jantzita. 2006ko eraikina da. Interesatuok, idatzi zarugalde26@yahoo.es helbidera informazio edo argazkieske, edo deitu telefono zenbaki honetara: 660 20 58 92

Arrasate. Juan Carlos Guerra kalean etxebizitza saldu edo errentan ematen da. Larrañaga optika gainean. 90 metro koadrokoa. Prezio oso onean. Hiru logela, egongela eta komun batekin. Bi balkoi ditu etxeak. Etxea egoera onean dago eta bizitzen hasteko moduan. 616 50 67 28 edo 665 72 46 12

Eskoriatzan apartamentua. Apartamentu eroso eta eguzkitsua salgai. Prezio negoziagarria. Aukera paregabea. Deitu telefono hauetara: 65371 53 58 edo 637 42 70 12

Oñati. 68 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Sukaldea, egongela, bilogela eta komuna. Guztiz jantzia eta bizitzera sartzeko moduan. Berokuntzarekin. 237.000 euro. 35 metro koadroko garajea aukeran. Egoera oso onean. Inigo. 659 72 06 64

Oñati. Lau logelako etxebizitza salgai Arantzazu kalean. Bi komun, sukaldea, egongela eta trastelekua. Jantzita. Igogailua eta berokuntza indibiduala. Oso eguzkitsua. Prezio interesgarria. Ez du berritu beharrik. 635 06 24 79

103. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. 95 metro koadro erabilgarri. Etxebizitza berria, hirugarren solairuan. Igogailuarekin. Hiru logela eta bi bainugela. Dena kanpoaldera begira. Hilean 680 euro, komunitate gastuak barne. Argazkiak ikusteko: www.euskalnet.net/aguires. 630 60 47 75

Arrasate. Erdialdean apartamentu berria ematen da errentan. Logela, bainugela, sukalde-egongela. Trastelekua. Pertsona batentzat edo bikoteentzat apartekoa. 639 17 49 52

